



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO GRADUA
2020/2021 IKASTURTEA

Ekologismoaren eta Feminismoaren Inguruko Kokapen Diskurtsiboa 2020ko EAEko Hauteskunde Programetan

EGILEA: JON LOPEZ CORCHERO

ZUZENDARIA: IZARO GOROSTIDI VIDAURRAZAGA

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
1.1 Lanaren aurkezpena.....	2
1.2 Ikerketaren Helburuak	4
1.3 Ikerketa Galderak	4
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1 Komunikazio Politikoa eta Hauteskunde Programak	5
2.2 Tesi postmaterialistak	6
2.3 Teoria Politiko Feminista	8
2.4 Teoria Politiko Ekologikoa	9
3. METODOLOGIA	12
4. ANALISIA.....	15
4.1 Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra.....	15
4.2 Eusko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco	20
4.3 Euskal Herria Bildu	26
4.4 Elkarrekin Podemos – Ezker Anitza	31
4.5 Partido Popular – Ciudadanos.....	37
5. ONDORIOAK	41
BIBLIOGRAFIA.....	47
ERANSKINAK.....	51
Laburduren eta siglen zerrenda	51
Irudien zerrenda.....	51

1. SARRERA

1.1 Lanaren aurkezpena

Atsotitz bat zioen, erantzun guztiak genituela uste genuenean bat-batean galdera guztiak aldatu zizkigutela. Eta ez da ergelkeri bat, egungo garaiko erantzunak baliogabetuta daude, erantzun horiek beste garai bateko galderetatik datozelako. Bide horretatik, Dubet eta Martuccelli-k (2000) diote gaur egun jendartearen ideia-eklipsea bizi dugula. Ez dela *sozialaren* eklipsea, baizik eta jendarte-bizitzaren zenbait irudikapen hustuketa. Hortaz, indibidualizazioaren ondorioz, hilda eta bizirik dauden kategoria ugariarekin bizi gara.

Halaxe eraiki zen egungo mundua, neoliberalismoaren eskutik eta Thatcher hegemonia berri horren buru ikusgarriena izanda; ez zegoela jendarte bezalako zerbait esanez (Thatcher, 1987). Gizabanakoak zeudela, gizonak eta emakumeak; eta familiak ere bazeuden. Eta gobernuek ezin zutela ezer egin jendearen bidez ez bazen. Agertoki horretan, gizabanakoak bere burua egin behar zuen, lehiakorra eta handinahi handikoa izan, eta "bere gaitasun eta merezimenduei esker" behar zuen arrakasta lortzeko.

Puntu horretara iritsi arte, porrotak izan dira, XX. mendearen erditik aurrera ezkerri eta langile-mugimenduari esleituak. Erantzun horiek gizarte modernoari buruzko galderetatik zetozen, kapitalismoaren kritika sozial gisa ardaztu zuena. Baina elkartzen gintuen gauzetako bat, menderatutako klasearen pertenezia, apurka-apurka eraitsiz joan zen. Halaber, betaurreko moreak eta betaurreko berdeak ez zituzten jarri euren mundu-ikuskerara gainbehera egin arte.

Gauzak horrela, meta-narrazioen krisiaz hitz egiten da, komunitate gisa kontatzen ditugun irudipen gisa ulerturik, eta istorio berriak eraikitzea tokatzen da. Meta-narrazio berriak, garai berriei erantzuteko gai direnak, zentzua ematen digutenak eta segurtasuna ematen digutenak. Testuinguru horretan sortu ziren jendarte-mugimendu berriak, feminismoarekin eta ekologismoarekin lotutakoak bereziki. Horiek, hain zuzen ere, izango dira lan honen euskarriak.

Bi ideologia horien bidez, Euskal Autonomi Erkidegoan kokaturiko hauteskunde-diskurtso politikoaren azterketa egingo dut. Non denborazko markoa Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeak aintzat hartuko ditut. Izan ere, eztabaida ideologikoari begiratzeko esparrurik onena komunikazioa da, kasu honetan hauteskunde-komunikazio¹. Eta bereziki, geure demokrazia ordezkatzailetan, hauteskundeak nork kudeatuko gaituen erabakitzeke tresna baitira.

¹ Lan honek azterketa-unitatetzat hartuko ditu hauteskunde-programak, eta Diskurtsoaren Anlisi Kritikoaren estrategia zientifikoan kokatuta dago; non hizkuntzaren azterketa harremana dauka boterearekin eta ideologiarekin (Fairclough, 1995: 2). Metodologia atalean sakonki landuko dena

Denborazko markoa izendatu dezakegun "Pandemiaren urtean" kokatu daiteke ere. Pandemia horrek agerian utzi du jendarte-administrazio arloko eraikin guztia, eta, bereziki, erakundeen disfunczioak agerian utzi ditu: udaletatik nazio-estatuetera. Covid-19 izeneko gaitz batengatik sorturikoa, ikertzaile askoren hipotesien arabera gizakiak animalien erreinuaren biosferan eskuan sartzean sortzen dena, eta haien gaixotasunak gure giza gorputzetara transmitituz. Giza arrazak naturan duen nagusitasunaren ikuspegiaren adibide gisa. Beste adibide bat Zaldibarko hondamendia izan zen, hauteskondeen aurretik. Bi langile hil ziren inguru naturaleko zabortegei batean lanean, Durangaldea, Debagoiena eta Debabarrena eskualdeen artean.

Pandemia horrek areagotu egin ditu zainketen eta krisi eko-sozialaren krisiak. Produkzio- eta ugalketa-sistemarekin lotutako bi krisi. Alde horretatik, ideologia horiek nahiko esanguratsuak dira, zeren eta, lurra eta historia finkatzen zituenak zentzu osoa izateari utzi dion unean, mugimendu feminista eta ekologistak gure euskarri den horretatik, bizitzatik, erantzunak artikulatzen saiatzen dira; meta-narratiba horiek eraikitzeke asmoan hautagai indartsu agertu diren ideologiak baitira. Beraz, ideologia postmoderno berriak ideologiak ote diren eztabaidatik harago, ideologia horien garrantzia zalantzez haratago doa.

Hori esanda, lana modu linealean harremandutako bost atal handitan banatuko da: Dagoeneko, lanaren sarrera-atalean gaude, eta orain azalduko ditut ikerketaren helburuak (orokorra zein espezifikoa) eta horiei lotuta dauden ikerketa galderak. Bigarren atalean, marko teorikoa ezarriko da, EAEko sistema politikoa eta hauteskunde sistemaren analisiaren bidez (komunikazio politikoarekin duen erlazioari dagokionez), teoria politiko feministaren azterketaren bidez eta teoria politiko ekologistaren azterketaren bidez.

Ondoren, lan honetarako erabilitako metodologia azalduko dut (oinarri teorikoa aipatuz, baina hartan bete-betean sartu gabe). Ondoren, lanaren "bihotza" aurkituko dugu: analisiaren atala; bertan, alderdi² politikoen diskurtsoak aurkeztuko ditugu, bakoitzari bere azpiatala eskainiz eta feminismoaren eta ekologismoaren kategoriekin lotuz. Azkenik, lan beraren ondorioak azalduko dira.

² Lan honetan, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoen [EAJ-PNV, PSE-EE, Elkarrekin Podemos eta EH Bildu] diskurtsoak (idatzizkoak) baino ez dira kontuan hartuko azterketa-unitatetzat, Vox izan ezik. Analisia atalean xehetasun osoz landuko dena

1.2 Ikerketaren Helburuak

Gizarte-zientzietako ikerketa zientifiko oro metodo zientifikoa errealitatea behatzeko aplikatzearen ondorio da. Metodo zientifiko hori egitura formal bat da (ez hertsia) teoriak eta paradigmatzuk formulatzeko, errealitatea murriztu gabe sinplifikatzeko, herritar guztiek eskuragarri izan dezaten. (Del Rio, Olga; 2011) Edozein ikerketa kezka batetik sortzen da, galdera gisa azalduta, kasu honetan honako hau: nola txertatu zituzten alderdi politikoen 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan gai feminista eta ekologistek beren programetan?

Hasierako galdera ezarri ondoren, forma eman behar zaio. Hasierako galderak ikerketaren ardatz nagusi gisa balio du, ulergarria den barnekoherentzia eskainiz. Hortik sortzen dira ikerketaren helburuak, helburu orokorrean eta helburu espezifikoetan banatuta. Ikerketaren **helburu nagusia** 2020ko udan Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan alderdi politikoen gai feminista eta ekologistek buruzko azterketa diskurtsiboa egitea da. **Helburu espezifiko**en zerrenda azalduko dugu orain:

- Ezagutu nola EAE-ko alderdi politikoen feminismoa eta ekologismoa txertatu dituzten euren programetan
- Feminismoaren eta ekologismoaren korranteak alderdi politikoen diskurtso ideologikoen identifikatu
- Alderdien arteko desberdintasun eta berdintasun diskurtsiboak antzematea ideologia ekologista eta feministaren baitan

1.3 Ikerketa Galderak

Laburki azaltzearen, justifikazio metodologikoa 12. orrialdean baitu dagokion beharrezko hedadura, ikerketa honek ez du ikerketa-hipotesirik planteatuko, baina bai ikerketa-galderak. Horren arrazoia lan hau paradigma hermeneutikoan kokatzean datza; hau da, hitzen (eta kasu honetan idatzizko testuen) bidez pertsonen kontzientzian dauden ideien esanahiak agerian uzten dituen prozesua delako (Dilthey, W.; 2000). Hasierako galderan zehaztu dugun bezala, lan honetarako oinarria den aldetik, planteatutako helburu zehatzei buruzko galderak aurkeztuko ditugu:

- Nola ordezkatu dituzte EAE-ko alderdi politikoen gai feministak eta ekologistak beren programetan?
- Feminismoaren eta ekologismoaren zer korrante ideologikorekin lotu ditzakegu alderdi politikoenak?
- Zer desberdintasun edo antzekotasun diskurtsiboak daude alderdi politikoen artean ekologismoari eta feminismoari dagokienez?

2. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, teoriak, ikuspegi teorikoak, paradigmak eta aldez aurreko ikerketak aztertu eta azaldu nahi dira, ikergaiaren azterketan, ulermenean eta azalpenean sakontasun eta irismen handiagoa ahalbidetuko duen esparrua eraikitzeko. Marko teorikoa, beraz, ikertzaileak paradigma edo teoria baten barruan duen kokapenaren emaitza da, eta hortik eratortzen dira zenbait ikuskera teoriko eta metodologiko. Ikuspuntu edo ikuspegi jakin bat osatzen duten kontzeptu eta proposizioen multzoa da, ezarritako fenomenoak, gure kasuan, deskribatzera bideratua. Hori horrela izanda, hurrengo atalaren hasieran komunikazio politikoa hauteskunde-programekin duen harremana jorratuko dugu, ostean Teoria Politiko Feminista eta Ekologista landuko ditugu

2.1 Komunikazio Politikoa eta Hauteskunde Programak

Komunikazio politikoari buruzko atal hau "Sapir-Whorf-en hipotesia" izeneko axiomatik abiatzen da, non honen arabera, hizkuntza ez da soilik bitarteko bat ideiak adierazteko, baizik eta kontzeptualizatzeko eta beraz, mundua hautemateko modu oso bat. Gizakiak izaki sozialak garen neurrian, hainbat komunikazio-kanalen bidez harremanak izaten ditugu. Alde horretatik, diskurtsoa gizarte-bizitzaren zati da, eta, aldi berean, gizarte-bizitza sortzen duen tresna bat (Calsamiglia eta Tusón, 2012).

Alde horretatik, komunikazioa ez da soilik informazioa helarazteko prozesu simple eta mekaniko bat, baizik eta prozesu interaktibo eta konplexu bat. Gizartean botere-harreman asimetrikoak dauden heinean, komunikazio-egoerak ere hegemoniaren aldeko borroka ideologikorako esparrua dira. Era berean, boterea da beste pertsona edo pertsona-talde batean eragitearen isla, kasu honetan, hauteskunde-programa duen dokumentu batean jasotako konpromisoen bidez.

Komunikazio politikoaren azpi-diziplina gisa Bigarren Mundu Gerra eta gero garrantzia hartzen hasten da Walter Lippman-ek iritzi publikoa kontzeptuaren hedapenarekin, Iritzi Publikoa (1965) lanean, non argudiatzen baitu komunikabideek kanpo-munduaren eta gure buruan ditugun irudien arteko zubiak direla. Hari horretatik sortuko litzateke, besteak beste, Orratz hipodermikoa deituriko teoria, non masa komunikazio hedabideen mezuak herritarrak era pasiboan baldintzatzen dituzte.

Ikuspegi honen kontrara eratuko litzateke eragin mugatua izeneko eredua. Ikus-entzunezko hedabideen hedadurarekin batera marketin politikoa eta beste hainbeste tresna garatu ziren gizakia izaki arrazional gisa aintzat hartzen zituztenak. Herritarrak jarrera kritiko eta aktiboa dute, mezu batzuk onartu, euren usteen arabera berrinterpretatuz, eta besteak baztertu egiten dituzte.

Garapen historiko horren ondoren, *Framing* (**Markogintza** hemendik aurrera) izeneko paradigma berri bat sortu zen. McCombs eta Shaw (1972) dira haren aurrekariak, eta *agenda setting* (agendaren-ezarpena hemendik aurrera) teoria garatu zuten. Hedabideek garrantzia ematen diete gai jakin batzuei beste batzuk ezkutatzuz, non halako moduan eragina baitute herritarrengan, zer arazotan pentsatu behar duten adieraztean.

Lan honi dagokionez eta politikaren eta komunikazioaren arteko harremanari dagokionez, markogintza da esparru garrantzitsuenetakoa. Lakoff-en (2007: 4) hitzetan: markoak mundua ikusteko gure modua osatzen duten egitura mentalak dira. Baina ez du hizkuntzarekin bakarrik zerikusia. Lehenik ideiak baitaude. Eta hizkuntzak ideia horiek transmititzen ditu, ideia horiek gogorarazten ditu. Hala ere, markogintzak ez ditu mundua ikusteko moduak bakarrik zehazten, arazoak, arazo horien eragileak edo zergatiak ere definitzen ditu, eta konponbideak ere iradokitzen ditu (Entman, 1993: 52).

Puntu horretara iritsita, eta lan honen sarreran hasitako jendarteari buruzko ideiei berriro helduz, gaur egungo mundua merkatuaren logikak "kolonizatu" (Habermas, 1987: 451-469) du neoliberalismoaren eta haren hedapenaren bidez, non ez dago aukerarik (Ahedo eta Telleria, 2020). Alde horretatik, politika *merkantilizatu* egin da nolabait, eta autore batzuk "marketinaren jendartearen" kontzeptua erabiltzen hasi dira (Del Rey Morató, 2011).

Alde horretatik, egokia da hauteskundeen portaera politikoa aztertzea, hauteskundeen bidez (kasu honetan sistema politiko ordezkatzailan), "gubernamentability" (Foucault: 2009) *apolitizatuaren* ikuspegitik; non arlo publikoaren kudeaketa logika ekonomiko arrazionalaren bidez artikulatzen da. Zentzu horretatik, hauteskunde-programak ondasun nahaspila dira (ezarri beharreko politika publikoak eta gauzatu beharreko gobernu-ekintzak), eta merkatuan (errepikakor hauteskundeetan) erosi behar dira (botoaren bidez).

Laburbilduz, hauteskunde-programak dira, aldi berean, estrategia politikoen sorta, eta komunikazio-tresna politiko garrantzitsua (markogintzaren ikuspegitik, mundua ikusteko eta interpretatzeko esparruak helarazteko modua).

2.2 Tesi postmaterialistak

Lan honen diziplina zientifiko-teorikoaren esparrua definitu dugu jada, Komunikazio Politikoaren hurbilketa historikoa eginez, markogintzaren teoria azalduz eta neoliberalismoan testuinguruan kokatuz. Aldiz, Modernitatetik Postmodernitaterako igarobidea erpin asko dituen eztabaida da, askotan oso irristakorra gerta dakigukeena. Aldaketa-prozesu guztiak bezala, ibilbide historikoak dira jendarte-aldaketa moldatuz doazenak; inflexio-puntu markatuak izanda.

Alde horretatik, garrantzitsua iruditzen zait Victor Klemperer-en (2005: 31) hitzak gure gaira moldatuz aipatzea: hitzek [diskurtso-ekoizle gisa] artseniko-dosi oso txikiak dituzte, konturatu gabe kontsumitzen direnak; eta, denbora joan ahala, beren eragina gauzatzen dute gizartea erabat aldatuz. Ulrich Beck-en (2002: 14) aburuz, ordea, Modernitatea zuzentzen zuten erakundeak sozialak oraindik ez direla hil, eta haren terminologian, “zonbi” diren erakundeak direla.

Daniel Bell-en (1976) arabera, jendarte berri honek ekonomia eta antolaketa ekoizteko modu berri bat du, ardatz artikulatzailea robotika eta informazioaren teknologia garatzea duena. Industriaurreko eta industria-jendarteek pixkanaka egokitzen dituzte beren ekoizpen- eta banaketa-modu ekonomikoak, eta pixkanaka beren bizitza- eta garapen-baldintzak doitzen dituzte lparra globalaren eskakizunen arabera. Egitura ekonomikoaren egokitzapenak, aldi berean, egokitze kultural, politiko eta demografikoak eragiten ditu.

Kultura-aldaketei dagokienez, Ronald Inglehart-en (1991) aburuz, jendarte-sinesmen sistemen aldaketek ondorio sozial, politiko eta ekonomiko garrantzitsuak dituzte. Garapen ekonomikoa, aldaketa kulturala eta politikoa batera gertatzen dira. *Balioen belaunaldiarteko aldaketaren* tesia eskaintzen du. Tesi horren arabera, gerraosteko garapen ekonomiko azkarraren eta Ongizatearen Estatuaren hedapenaren ondorioz, industria-jendarteetako talde gazteenen prestakuntza-esperientzia ez da aurreko belaunaldien esperientzia bezalakoa, beste lehentasunak garatuz. Hauetan, dimentsio ez *material* batzuk hauspotzen dira.

Tesi honen baitan “behar fisiologikoen asetzeak helburu ez fisiologikoen edo post-materialisten inguruan enfasi handiagoa jartzera eramaten du” (Inglehart, 1991: 23). Hori egiaztatzeko, bi hipotesi planteatzen ditu (Ibidem: 61):

- **Eskasiaren hipotesia**, non gizabanako baten lehentasunek bere ingurumen sozioekonomikoa islatzen dute, ondasun urriei balio subjektibo handiagoa emanez.
- **Sozializazio hipotesiak** dio ingurune sozioekonomikoaren eta balorazio-lehentasunen arteko erlazioa ez dela berehalako doitze-erlazioa; izan ere, denbora tarte nabarmena dago lehenengoaren eta bigarrenaren artean, gure oinarrizko balioek heldu izatera iritsi aurretik nagusitu ziren baldintzak islatzen baitituzte.

Balio posmaterial nagusienetariko bi ekologistak eta feministak (neurri txikiagoan) dira. Ondoren, bi ideologiaren azalpen labur bat egiten saiatuko naiz, genealogia zehatz bat eginez eta bi ideologiaren artean gaur egun dauden eztabaidak azalduz. Horren emaitza interpretazio-eskema labur bat izango da, alderdi politikoen diskurtsoen atzean dauden marko kognitiboekin lotzeko.

2.3 Teoria Politiko Feminista

Teoria politiko feminista oso konplexua, askotarikoa eta plurala da. Eraldaketa eta gogoeta-kritika handiena jasan duen arloa da; etengabe irudimen politikoak asmatzen eta ekintza-estrategiak sortzen ari baita. Jendarte-mugimendu feminista bertatik eratortzen da, izaera eraldatzaile eta emantzipatzailea batekin, helburua patriarkatua ezabatzea dena. Patriarkatua "gizonen menderakuntzan oinarritutako jendarte-arloa antolatzeko sistema" da (Martínez eta Ormazabal, 2020).

Mugimenduaren genealogiari dagokionez, barruan hiru "olatu"³ handi daude. Lehenengo Olatua berdintasunaren feminismoaren oinarria da. Ilustrazioaren garaian, gizon guztientzako eskubide-berdintasunaren printzipioak aldarrikatzen ziren. Emakumeek borroka egin behar izan zuten etengabe bazterten zituzten askatasun horiek ere onar zitzaten. Alde horretatik, Olympe de Gouges eta Mary Wollstonecraft-en ekarpenak izango genituzke. (Moreno, 2019)

Bigarren Olatua feminismo liberal sufragistarena da. Hori da ezagunena, Seneka Falls-ek 1848an egindako adierazpenetik (AEBtako emakumeek erabakiekiko independentzia eskatu zuten) Bigarren Mundu Gerraren amaierara arte. Hasieran, sufragista britainiarren mugimendua sortu zen, emakumezko sufragioaren eztabaida hasiz. Gerra-garaian, emakumeak etxetik atera beharko lirateke lantegietara. Orduan, Mugimendua produkzio lanerako eskubidearen berdintasuna aldarrikatzen hasiko litzateke. (Moreno, 2019) Alde horretatik, feminismo honek tesi postmaterialisten eremu grisean dago, honek eskubide-berdintasunaren aldarrikapenak egiten baitzituen; hots, balio materialak.

Berdintasunaren feminismoa edo humanista bi olatu hauen baitan kokatzen da eta funtsezko bi gaitatik abiatzen da: konstruktibismoa eta feminitatearen definizioa. Lehenengo kasuan, Simone de Beauvoir-en (2005: 371) esaldia: "Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da"; teoria politiko feministaren barruan konstruktibismoak zer adierazten duen laburtu dezake.

Alde horretatik, Beauvoir-en azterketa tradizio filosofiko frantsesaren esparru existentzialistatik abiatzen da. Giza esperientzia transzendentzian eta immanentzian banatzen duena. (Martínez-Bascuñán: 2020) Lehenengoak gizonek duten eta emakumei ukatzen zaien askatasun bera aipatzen du. Bigarrenak emakumea gizonaren mende egotearekin du zerikusia, haren subjektibotasuna ukatzeari eta objektu bat izateko betebeharrari dagokienez.

³ Mugimendu feministaren historia olatuetan egituratzen da. Feminismoaren aurrerapenak ezin baitira aldika neurtu, zeren eta emakumeen aurrerapen historiko bakoitzaren aurrean, patriarkatuak kontraerasoa egiten baitu, atzerakada txiki bat eragiten diona eta lorpen osoa lortzea galarazten diona. Olatuak bezala, mugimenduak aurrera eta atzera egiten du. (Moreno, 2019)

Beauvoir-en azterketa sakona izan arren, zenbait autorek (Young, 2005; besteak beste) oso argudio mugatuak eta planteamenduak ikusi dituzte bere ondorioetan, patriarkatua zalantzan jartzen ez zutenak hain zuzen. Labur esanda, autore horiek kritika bera egiten diote: eskubide-berdintasuna aldarrikatzea ez du sistema zalantzan jartzen, eskubide horiek patriarkatuaren beraren ondorio baitira. Alde horretatik, desberdintasunaren feminismoa deritzona sortzen da; bi estrategia nagusi izango zituen ardatz: aintzatespenaren estrategia eta berrizendapen estrategia.

Berrizendapen estrategia arazoaren errora, ezarritako interpretazio-esparru heteropatriarkalera joaten saiatuko da. Ez die erakundeei eskatuko eurentzat sortu ez diren erakundeetan pare gisa parte hartzeko aukera. Feminismo honek zalantzan jarriko du kultura/natura edo arima/gorputza eta publikoa/pribatua edo produktiboa/ugaltzailea binomioak; subjektibotasun librea aldarrikatzeko. Aintzatespenaren estrategia zaintzaren balio moralak, estetika femeninoarekiko gustua, logika maskulino lehiakorrekiko arbuioa eta aintzatespena bilatzen saiatuko da.

Garai hartako lanik garrantzitsuenetariko bat da Carol Gilligan-ek (1982) argitaratuko zuena, non, Kanten garapen moralaren teoriei egindako kritika batetik abiatuta, zainketaren etikaren ikuskera bat formulatzen baitu, emakumeak sozializatzeko roletan oinarritua. Testuinguru horretan garatzen da Hirugarren Olatu Feminista. Feminismo berriak eta korrante berriak sortzen dira elkarren arteko lehian, feminismo beltza, feminismo dekoloniala, ekofeminismoa, transfeminismoa edo feminismo queer; feminismo hegemonikoaren etnozentrismoa salatuz.

Azken horri dagokionez, beharrezkoa da Judith Butler-ren *El género en disputa* (2017) izeneko lana aipatzea. Sexu-generoa binomioa zalantzan jartzen zuelako. Haren iritziz, sexuaren kategoria problematikoa da emakume bat zer den definitzeko, haren identitatea esentzializatu baitezake. Heterosexualitate arau-emaile aldaezinaren funtzio ideologiko hori agerian uztea dio. Gorputzaren izendapen politikoan oinarritutako ikerketa berrien lehen harria litzatekeena, *embodiment* fenomenologia bezala ezagutzen duguna.

2.4 Teoria Politiko Ekologikoa

Familia feministan bezala, teoria politiko ekologista oso handia, askotarikoa eta konplexua da. Ekologismo Politikoa politikaren eta ingurumenaren arteko egungo harremana hobekien adierazten duen ideologia politikoa da. Hau *holismo ekologikotik* abiatzen da. Teoria politiko berdeak harreman hurbilagoa du ekintza politikoekin. Eta betaurreko berdeetatik mundua begiztatzeko moduaren eta mundua aitzur berdearen bidez aldatzeko moduaren artean, hainbat mugimendu ekologista eta alderdi berde bizi dira.

Teoria politikoa, politika berdea eta ekologismo politikoa⁴ kezka politikoetatik gertuago dauden gai eta eztabaida zehatzetara gerturatu dira. Ingurumen-politika malgutu egin da, eta horietako asko erakundeetatik lana egitera alde daude. Egun, dimentsio ekologikoa gero eta garrantzi handiagoa du, ekologismoa politika berdearen eragile politiko bakarra izateari utzi badio ere. Alderdi berdeen pragmatismo politikoa eta estrategiak norabide politiko horren adierazpen zehatzak dira. (Valencia, 2020)

Hala ere, arazoa ez da gizakiak ingurumenean duen eragina aitortzea edo natura defendatzea, baizik eta proposamenak gauzatzea sistemaren beraren barruan edo haren kontra egitea; horrek gure jarrera teorikoa eta politikoa ezartzen baitu. Ekologismoaren eta ingurumentalismoaren arteko bereizketa funtsezkoa da oraindik ere, ekologismoaren potentzial eraldatzailea ideologia gisa ezartzen duelako, bai eta Teoria Politiko Ekologistaren zuzendaritza ere.

Eztabaida klasikoaren arabera, ekologismoak antropozentrismoa kritikatzeko du (ekoizpen-sistemaren muga naturalak salatuz), eta jendarte berri bat proposatzen du (balio *ekozentrikoetan* oinarritua) egitura-aldaketa sakonen bidez. Bestalde, ingurumentalismoak nahiago du klima-aldaketa eragiten duten faktoreei kritika partziala egitea, sistemaren barruan aldaketak proposatzen ditu (*aberastasuna berdin garapenaren* idealean oinarrituta) pragmatismo erreformista baten bidez. (Dobson, 1997)

Teoria Politiko Ekologikoaren alderdi eraldatzaile horretan, indar nagusiz agertzen da ekosozialismoa, zeinak kontuan hartzen baititu sozialismoaren eta Europako sozialdemokraziaren porrotak, eta jendarte balio sozialei eutsiz. (Barcena, 2020). Ekuazioari gure munduaren muga ekologikoak onartzearen garrantzia gehitu zaio. Ekosozialismoarentzat, krisi ekonomikoa eta ekologikoa, banaezinak dira.

Alde horretatik, ekosozialismoaren nortasun-ezaugarriak dira produktibismoa zalantzan jartzea eta haustura metabolikoaren kritika. Zentsu honetan, *desazkundearen* eta hazkunde berdearen (edo jasangarriaren) ardatza ezar daiteke jarrera ekologistak eta ingurumenekoak bereizteko. Hazkunde berde horretatik Green New Deal, Nazio Batuen Agenda 2030 edo Next Generation EU bezalako proposamenak aurkitu ditzakegu. Aipatu behar da, halaber, ekosozialismoa ekologismoaren [erradikala] barruan beste ikuspegi anti-humanista edo anti-sozial batzuekin batera bizi dela, hala nola ekofasizismoarekin.


⁴ Alde horretatik, komeni da Teoria Politikoa, Ideologia eta Politika bereiztea. Lehenengo kasuan, errealitate soziala eta politikoa metodo zientifikoaren bidez aztertzen saiatzen den hausnarketa zientifikoa da (Zapata, 2005). Bigarrena, proiektu koherente baterako gizarte-munduaren irudikapen, jarduketa edo irudikapenak (Goodwin, 1997). Azkena, kolektiboki lotesleak diren erabakietan eragiteko jarduerak izango litzateke (Vallès, 2007).

Bestalde, ekosozialismoak trantsizio postkapitalista antolatzen du eginkizuna hartzen du bere gain. Horrek esan nahi du trantsizio-programa bat ezarri behar dela, nahikotasun eta justizia sozialaren, iraunkortasun ekologikoaren eta ugaltze- eta ekoizpen-lanen birbanaketaren oinarrietatik abiatuta. Jendarteberdintasunaren eskaerekin lotuta egon behar du, ziklo naturalak errespetatuz, jendarte-sistema jasangarria lortzeko. Feminismoak eta gaur egungo zainketen krisiak zeharkatu behar dute eraldaketa honek. Azkenik, herri-jabekuntza gisa ikusten diren ideal libertarioetatik abiatu behar du (Barcena, 2020).

Ekofeminismoa feminismoaren ekologismoaren hurbilketa ideologikoa da. Bizitza erdigunean jartzen eta planetako izaki bizidun guztiak aintzat hartuko dituen erantzuna artikulatzen saiatzen da. Halere, korrante ideologiko honen barnean ikuspegi liberal-erradikalak (biologia eta natura elkartzean nolabaiteko esentzialismoetatik abiatzen direnak), eta sozialistak (esentzialismoetatik haratago doazenak eta, lanaren ikuspegi sexualaren analisia eta muga naturalak gehitzen dituztenak) batera bizi dira. Bigarren kasu honetan, Aiell Salleh (1997), lan *metaindustrialaren* kontzeptuarekin; edo Yayo Herrero (2011) (*ekomenpekotasunaren* eta *interdependentiaren* ikuspegiarekin bezalako egileak aurkituko genituzke).

Lanaren atal teorikoa amaitutzat ematen dugu. Azken batean, Komunikazio Politikoaren diziplinaren ibilbide historikoa landu dugu, hauteskundeetan duen garrantzia eta erlazioa azalduz; egungo bezalako testuinguru neoliberal batean kokatuz. Ondoren, Inglehart-en tesi postmaterialistak feminismoarekin eta ekologismoarekin duen erlazioan ekarri ditugu. Amaieran, Teoria Politiko Feminista (berdintasunaren feminismoaren eta desberdintasunaren feminismoaren arteko bereizketa historikoa azalduz) eta Teoria Politiko Ekologista (ekologismoa ingurumenaren aldetik bereiziz) gehiago sakonduz. Modu laburrez, hona hemen orain arte landutakoaren eskema kontzeptuala:

1. Irudia. Marko Teorikoaren laburpen kontzeptuala



Iturria: Egileak eginda, Anton eta Torrens-etik (2020) oinarrituta

3. METODOLOGIA

Lehenik eta behin, esan behar da gizarte-zientzietako diskurtsoaren azterketaren esparrua ikuspegi zientifiko ugariren barruan dagoela. Komunikazio politikoa diziplina anitzeko ikergai da, horren barruan Informazioaren eta Komunikazioaren Zientziak, Marketina edo Zientzia Politikoak batera bizi baitira.

Diseinu metodologikoari dagokionez, zehazki, ikerketa hau oinarrizkoa da (idatzizko diskurtsoen bidez fenomeno ideologikoak ulertzeko esparruan mugitzen garelako) eta deskribatzailea (alderdi politikoen esparru ideologiko feminista eta ekologistak taxutzen saiatzen garelako). Gainera, ikerketa kualitatiboan kokatuta dago. Honetan zentzuzko datuak ezagutarazi nahi dira, hau da, ikertutako fenomenoek jendearen buruan duten esanahia aztertu nahi da. Datu horiek subjektiboak dira, ezin dira pisatu, neurtu edo zenbatu; beraz, ikerketa honek ez ditu hipotesiak planteatu.

Arestian aipatu dugun moduan, lan hau Diskurtsoaren Analisi Kritikoaren ikuspegitik abiatzen da. Van Dijk-en (2016: 1) hitzetan:

«El ACD es un tipo de investigación que se centra en el análisis discursivo y estudia, principalmente, la forma en la que el abuso de poder y la desigualdad social se representan, reproducen, legitiman y resisten en el texto y el habla en contextos sociales y políticos. [...] No es un método especial. [...] En otras palabras, el ACD es el estudio del discurso con una *actitud*.»

Ildo horretatik, ikerketa honek alderdi politikoek 2020ko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan bi auzi zehatz nola aurkeztu zituzten erakusteko erronka du; hauek, zalantzarik gabe, botere hegemonia zeharkatzen dituen osoz: feminismoa (sistema heteropatriarkalaren barruan) eta ekologismoa (hazkunde mugagabeko sistema kapitalistaren barruan). Horri dagokionez, bi mundu-ikuskera horiek argitara ateratzeko modurik onena alderdi politikoen diskurtso-produkzioaren bidez planteatu nahi izan da, diskurtso ikuspegi kritikotik aztertuz.

Hauteskunde programa politikoen azterketari dagokionez, Van Dijken analisi metodoa aplikatuko dut. Hori, laburbilduta, Diskurtsoaren Analisi Kritikorako Metodoak liburuan azaldutakoan zehazten da (Meyer, 2003: 71-72): makroegitura semantikoaren azterketa (gaiak eta makroposizioak), tokiko esanahien azterketan (ezagutza partekatuaren adierazpenak inplikazio, auresuposizio, aipamen... bezala), egitura formal "sotilen" azterketa (bereziki, antolaketaren eskemak eta *hitzaren ekintzak*⁵) eta testuinguruaren analisisa.

⁵ Austin eta Searle-n (1955 eta 1994) hitzen Ekintzen teoria premisa honetatik abiatzen da: hitzak ez dute bakarrik balio gauzak adierazteko, baizik eta gauzak egiteko ere, hala nola aginteko, hitzmateko edo baieztatze.

Eredu honetan gehiago sakontzearen, Van Dijken (2012) *La Ciencia del Texto* izeneko lana hartuko dugu erreferentziatza. Bere analisiaren barruko unitate txikiena (semantikaren esparruan) perpausak dira. Horiek, hizkuntza-enuntziatu diren aldetik, esanahi jakin bat dute, eta, akordio (konbentzio) baten ondorioz, hizkuntza-komunitate bateko hiztunek esanahia ematen diete. Esanahi horiek erlazioak ezartzen dituzte (erreferentziazkoak) izendatuaren (hitza) eta errealitatearen (antzeman daitekeena) artean. Zentzu horretan, perpaus bakartuei proposizioak deitzen die, egia edo gezurra izan daitekeen zerbait bezala. Maila bat gorago esaldien sekuentziak aurkituko lirateke. Honi dagokionez:

«podemos denominar base del texto a la serie de proposiciones que tiene como base una secuencia textual, pudiendo diferenciar así entre una base del texto implícita y una explícita. Para comprender un texto debemos reconstruir cognitivamente la base textual explícita completa, basándonos en la base textual implícita tal como aparece en la secuencia de frases. Inversamente es válida la regla general (pragmática) de que no necesitan expresarse todas las proposiciones de la base textual explícita (pueden quedar implícitas) cuando el hablante tiene razones para suponer que el oyente ya dispone de esta información» (Van Dijk, 2012: 46-47)

Hari horretatik heltzen gara metodologia honen kontzeptu nuklearrera: makroegitura semantikoak [edo makroproposizioak]. Bere hitzetan (Van Dijk, 2012): Testu baten makroegitura testu baten esanahiaren egitura globalaren irudikapen abstraktua da. Alde horretatik, testuek ez dute soilik egitura semantiko global bakarra. Gainegitura izeneko egitura eskematiko globala ere badaukate. Horrek lotura zuzena du kasuan kasuko testuaren generoarekin (adibidez: narrazio batek planteamenduaren, konplikazioaren, ebazpenaren, ebaluazioaren eta irakaspen eskemari jarraitzen dio).

Bestalde, beharrezkoa zaigu hauteskunde-programaren gure definizioa erakustea: Alde horretatik, hauteskunde-programa alderdi politiko bat hauteskundeetara aurkezteko eta ideologia, defendatzen dituen balioak, proposamenak eta politika- edo gobernu-jarduerak adierazteko dokumentu gisa ulertu behar dugu. Hauen helburua jendea erakartzea da, baina batez ere hautesleak, hauteskunde kanpaina batean, haien babesa eta botoak lortzeko.

Hari beretik, eta arestian azaldu eta garatutako metodologiari erreparatuz, hauteskunde-programen testu-tipologia aztertu beharrean gaude. Jiménez-Yáñez (2018) arabera, testu-tipologia hori prediktiboa da batez ere, eta, neurri txikiagoan, azalpen eta argudiozko tipologiak erabiltzen dira. Erabilitako lexikoan etorkizuneko aditzak eta pluralean jokaturakoak dira nagusi. Alde horretatik, hauteskunde-programa asmo sendoez osaturiko dokumentua da, konpromisoak edo promesak barnebiltzen dituena. Horrela, agintariak eta gobernatuak "kontratu" baten bidez lotu daitezke. Betiere, demokrazia liberal-ordezkatzailez diogu hau.

Hau guztia kontuan harturik, hurrengo atalean alderdi politiko bakoitzaren auzi ekologista eta feministen azterketa xehearen urratsak azalduko dira:

1. **Gai nagusiak** identifikatu (metodologian aurkezturiko makroegitura semantiko gisa) eta **markogintza**-prozesuarekin harremanetan jarriko ditugu (esparru teorikoaren atalean azalduta)
2. Hauteskunde-programen **egiturari** ere erreparatuko diegu, testuaren corpus politikoa [bere osotasun teoriko eta pragmatikoan] **korronte ideologikoekin** (marko teorikoaren laburpen kontzeptualari jarraituz, korronte bakarrean edo bien arteko eremu grisean sailkatuz) elkartuz.
3. Azkenik eta alderdi guztiak aztertu ondoren, euren arteko **diskurtsio berdintasunak eta desberdintasunak** aztertuko ditugu.

Era berean, hauteskunde programetan agerturiko aipamen testualetan oinarritutako azterketa bat egingo da. Ekologismoari eta feminismoari buruzko markoak eta alderdi politikoen proposamenak hartuko ditut erreferentzia gisa. Horri dagokionez, lehenbizi programa politiko bakoitzaren sarrera aztertuko da. Horren ostean, alderdi politikoei feminismoari edo ekologismoari buruz dituzten marko ideologikoaren zati diren aipamenak azalduko dira. Azkenik, feminismoari edo ekologismoari buruzko proposamen esanguratsuenak zerrendatuko dira.

Azterketa egin ondoren, alderdi politiko bakoitzaren ilustrazio eskematikoa erantsiko da. Ilustrazio honetan, azpialal bakoitzean alde aurreko analisia egiteko erabilitako aipuak agertuko dira. Eskema hauek Marko Teorikoa atalaren amaieran definitutako Mapa Kontzeptualean oinarrituta daude. Ilustrazioko aipamen guztiek kode bat izango dute. Halere, proposamenekiko kodeak baino ez dira erantsiko azterketa idatzian; izan ere, esparru ideologiko bakoitza osatzen duten aipuak kodetzeak gehiegi luzatuko luke paragrafoen luzera.

4. ANALISIA

Lanaren azken aurreko zati honetan, bete-betean sartuko gara 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan ordezkariak duten alderdien hauteskunde-programen azterketan. Arestian aipatu dugun bezala, kontuan izango ditugu EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu, Elkarrekin Podemosen eta PP+C-en hauteskunde-programak. Vox alderdiak, ordezkariak lortu zuen arren (eserleku bat), ez zuen aurkeztu hauteskunde-programa bat, baizik eta beste komunikazio-estrategia politiko baten alde egin zuen⁶. Hori dela eta, autoreak bere azterketa ez sartzea erabaki du, ez baitu aplikazio operatiborik.

4.1 Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra

PSE-EE alderdiaren hauteskunde-programa da krisi ekologikoari buruzko ikuspegi ideologikorik nabarmenenetakoa duena; izan ere, lehenengo lerroaldeetatik Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Agenda 2030 izeneko planaren markoa eskaintzen digute. Hain zuzen, programaren egitura formala helburu zenbakidunetan antolatzen da, eta helburu horiek lotura zuzena dute 2030eko Agenda bereko Garapen Jasangarriaren Helburuekin. Alde horretatik, lehenik eta behin Agenda 2030a azalduko dugu, ostean Teoria Politiko Ekologikoa aztertuko dugu eta azkenik Teoria Politiko Feminista landuko dugu.

Hori esanda eta aurrera jarraitu aurretik, beharrezkoa da Garapen Iraunkorreko 2030 Agendaren berri ematea. Agenda hori 2000. urtean abian jarritako beste plan baten jarraipena da, Milurtekoko Adierazpena izenekoa. Adierazpen honekin NBE-k muturreko pobrezia ezabatzea eta herrialde pobretuenetako pertsonak garapenerako duten giza eskubidea bermatzea bere gain zuen. Konpromiso hura Milurteko Garapenerako Helburuetan (MGH) finkatu zen.

MGH-en epea hamabost urtetan finkatu zen, eta epea amaitu baino lehen NBE-k beste agenda global berri bat jarri zuen abian, Agenda 2030 izenekoa. Hala ere, MGHen jarraipena ez ezik, Rio+20 Bidearen emaitza ere bada. Prozesu hori bera 1992ko Lurraren Bileran famatutik sortu zen, eta Lurraren mugak hartu zituen erreferentzia gisa, ingurumenaren aldetik iraunkorragoa zen paradigma bat lortzeko ekoizpenaren eta ekonomiaren norabidea aldatzeko. Hori azalduta, Agenda 2030en Garapen Iraunkorraren Helburuak 17 dira. Horiek, era berean, hainbat ardatzetan multzokatuta daude: pertsonak (genero-berdintasuna, besteak beste), planeta (produktio arduratsua, besteak beste), oparotasuna, bakea eta itunak.

⁶ Vox alderdiak beste estrategia politiko baten aldeko apustua egin zuela diodanean, sare sozialen eremuan (Twitter eta Facebook, batez ere), ikus-entzunezko tresnen bidez (bideo motzak, batez ere) jardun zutela deritzot. Hauteskunde-mitinak egin bazituzten ere, horiek agenda mediatikoan agertu ziren istilu publiko gisa zituzten ondorio gatazkatsuenetatik eta ez beren proposamenengatik. Horrek guztiak eragin du azterketan sartzeko arrazoirik ez egotea.

Aipatu bezala, programa bera [gaztelaniaz bakarrik aurkitu ahal izan dudana] "Larrialdi Klimatikoko Egoera" aipatuz hasten da sarreran, eta Euskadik erronka hori "ekonomia lehiakorrago eta klimatikoki neutroago baterantz aldatzeko palanka" bihur dezakeela uste du Euskadiko Alderdi Sozialistak. Beste une batean, "bizitzaren jasangarritasunaren erronka" gisa ere izendatzen dute.

Alde horretatik, garapen iraunkorraren alde egiten dute helburu nagusi gisa, non "garapen jasangarria politika guztiak zeharkatu behar ditu". Euren adierazpenak, arestian aipatutako sistema aldatzeko markoarekin lotzen dituzte; definizio horiek sistemaren barruan aldaketak bultzatzen badituzte ere, sistema bera aldatzen saiatzen ez dutelako legitimatzen dute.

Ondoren, Zazpigarren (Energia Eskuragarritasuna) eta Hamabigarren (Kontsumo eta Ekoizpen Jasangarriak) Helburuetako ataletan ingurumentalismoaren markoa ezartzen jarraitzen da. Ekonomia berdea, iraunkortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borrokari buruzko diskurtsoak eskaintzen dira, hauek "ingurumenaren arloko erabaki politikoak hartzeko gunea" izan behar dutela diote.

Horri lotuta, uste dute "ekonomia zirkularra ("Hurbileko merkataritza eta 0 kilometroko produktuen kontsumoa" gisa ulertuta) funtsezkoa dela ekoizpen-eredu jasangarriagoetara eta karbono-aztarna gutxiagorekin eraldatzeko". Bestalde, behin bakarrik aipatzen dira planetaren mugak onartzearekin eta aintzat hartzearekin zerikusia duten gaiak, "klima-aldaketaren ondorioak bizkortzearen, kutsaduraren eta biodibertsitatearen galeraren" ondoriozko arazoez ohartzeari.

Hona hemen sistema ingurumentalismoaren ikuspegitik legitimatzeko proposamen esanguratsu horietako batzuk:

- (10:28) Ingurumen-hezkuntzako planak eta dibulgazio- eta informazio-kanpainak egitea
- (10:30) Bidezko Trantsizioko Plan Estrategikoa [energia fosiletatik energia berdeetara]
- (10:31) Energia kalteberatasunerako arriskuan dauden euskal biztanleen ehunekoa %0ra murriztea.
- (10:32) Ekonomia Suspertzeko Plana Garoñako itxiturak ukitutako eremurako
- (10:33) Energiaren autokontsumoa eta autokontsumo partekatua sustatzea, eta energia berdearen erosketara bateratua bultzatzea (10:37 eta 10:40)

- (10:34) Auto elektrikoak kargatzeko sistema handitzea
- (10:36) Lurralde-antolamenduan eta hirigintza-plangintzan energia-ikuspegia sartzea
- (10:57) Euskadi 2030 Agendaren Idazkaritza sortzea
- (10:58 eta 10:59) Fiskalitate klimatikoari ekitea karbonoaren gaineko zerga sortuz

Ezarritako markoa eta PSEren proposamenak bat datoz teorian deskribatu dugun ingurumentalismoa korrontearekin. Alde horretatik, ezartzen den markoa larrialdi klimatikoa eta ingurumen-krisia den arren, hura konpontzeko modua da sistema energetiko-produktiboa bera zalantzan jartzen ez duten aldaketen bidez. Planetari kalte handiena egiten dioten ekintzak (CO2 isurketa) murrizten saiatzera bideratuta daude proposamenak, egitura bera aldatzera baino gehiago; pragmatismo erreformista (ekonomia jasangarria oinarrian duena) da PSEren ikuskera ekologikoaren atzean dagoena.

Gai feministari dagokionez, PSEk ezarri nahi duen markoa nahiko nabarmena da, bere "jardunaren ardatz nagusia genero-berdintasuna da". Uste dute, halaber, berdintasuna "aurrerapenaren balio unibertsala" dela, eta "gizartearen ongizate handiagorako, bizi-kalitate handiagorako eta hazkunde ekonomiko handiagorako aldaketa-palanka". Zentzu berean, "matxismoa desagerrarazteko bidea berdintasunezko erlazioa" dela sinesten dute.


Beraz, ikus dezakegun bezala, bere diskurtsoak Berdintasunaren Feminismoaren esparru teorikoan azaldutakoarekin harremana du; halere, PSEk interseksionalitatearen ikuspegi bai txeratzen du, emakumeek "bereizkeria anizkoitzak metatzen dituztela" esatean.

Hori horrela, sistema berdintasunetik aldatzeko PSEren proposamen adierazgarri batzuk ekarriko ditut:

- (10:12) Herritar itun bat ezartzea indarkeria matxista ororen aurka, hau Ertzaintzaren lehentasunezko ardatza (10:21) izanik, biktimen babesa eta arretarekin batera.
- (10:13 eta 10:26) Sentsibilizazio politikak eta pedagogia-programak eta abiaraztea, matxismoa eta *mikromatxismoak* desagerrarazteko.
- (10:15 eta 10:16) Berdintasunaren aldeko eragileen programak eta indarkeria matxistaren biktima diren haurrei laguntzeko programak sustatzea.

- (10:17) Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak
- (10:18) Indarkeria matxistaren aurkako babes integraleko neurrien legea bultzatzea
- (10:19 eta 10:22) Ezarritako zaintza partekatua errefusatzea eta aitatasun arduratsua sustatzeko programak prestatzea
- (10:21) berdintasunerako berriazko prestakuntzako hezkuntza-curriculum bat garatzea.
- (10:23) Ordutegiak arrazionalizatzearen aldeko itun soziala eta politikoa egitea
- (10:24) Emakumeak ahalduentzako eta balioak aldatzeko proiektuak sustatzea

2. Irudia. PSE-ren zuhaitz ideologikoa



Iturria: Egileak egin da

4.2 Eusko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco

EAJren hauteskunde-programa berrienetako eta ezberdinetako bat da, bai luzerari dagokionez (400 orrialde inguru, orrialde bakoitzeko hiru zutabetan antolatuta, beste alderdien 200 orrialdeekin alderatuta), baina, batez ere, estiloari dagokionez. Indize arrunta ondoren, EAJk euren Konpromiso eta Ekinbideak izeneko Sarrera atala eskaintzen digu. Hura bera aztertuko dugu, geure gaiak jorratzen baitituzte. Honekin batera zuhaitz formako ilustrazio bat gehitzen dute; sustraletan, enborrean eta hostoetan funtsezkoak diren zenbait kontzeptu adieraziz; horietan, ingurumen iraunkortasuna nabarmenduko nuke, ekologismoari/ingurumentalismoari dagokionez duen posizioaren erakusgarri gisa.

Ondoren, sarreraren sarreran, feminismoari eta ekologismoari buruz duten jarreraren pistak ditugu, ardatz gisa "enplegua sortzen duen programa" eta "ekonomia suspertzen duen programa" hartuta. Bigarrenengo honek, trantsizio energetikoaren eta ingurumena sustatzearen arloan ekingo lukeela. Horren ondoren, adierazpen bat egin dute gai feministan duten jarrerari buruz: "Euskadi aitzindaria izan da pertsona behartsuenen aldeko gizarte politikak bultzatzen. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiten".

Aurrera jarraituz, gaur egungo eta etorkizuneko testuingurura hurbiltzen gaituzte, hiru trantsiziotan adieraziz: teknologiko-digitala, energia- eta ingurumen-trantsizioa eta jendarte- eta osasun-trantsizioa. Gure gaiak bete-betean jorratzen dutenez, prognosi horietako bigarrena eta hirugarren aztertuko ditugu; EAJ, lehen ekologismoan eta gero feminismoan, zein markotan abiarazi nahi duen jakiteko.

Hasieran, "klima-aldaketaren erronkari" egiten diote erreferentzia, eta "gizarte-eredu eta ekoizpen arduratsuaren aldeko apustua egiten dute, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren konpromisoen" antzekoa. Alde horretatik, "2050erako euskal ekonomiak karbonoan neutroa izatea" dute helburu nagusitzat. Horretarako, "energia-sistema berriztagarri eta elektrikoaren kopurua handituko" dute. Adierazpen hauek guztiak, ingurumentalismoaren korrante *teknozalearen* zati hartu ditzakegu.

Gizarte- eta osasun-trantsizioaren prognosian, bitan soilik aipatzen da gai feminista. Lehenik eta behin, esaten da jendarte berrian emakumearen rolak guztiz integratuta egon behar dela. Izan ere, "beste behin ere krisiak emakume aurpegia du [...] emakumeak krisiaren txarrena jasan du, eta dagoen desberdintasuna berriro azaleratu da". Uste baitute, halaber, "genero berdintasuna, burutu ez den eta atzeraezina den birbilakaera bat dela".

Etorkizuneko trantsizio horiek identifikatu eta markoa ezarri ondoren, EAJk zenbait konpromiso adierazten ditu arestian aipatutako testuinguruaren ildotik. Bost Herri Konpromiso Estrategiko horiek proposamenetan landuko ditugu. Hala ere, euren politikak ardaizten duen erreferentzia ekarriko dut orain: "Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburuen 2030erako Agenda da gure esparru globala giza garapen iraunkorraren ereduaren kokatzeko". Beste era batera esanda, Ingurumen iraunkortasuna eta Berdintasuna "zuzen lerrokatuta" daude GIH-ekin

Gauzak horrela, eta sarreran baitan kokaturiko zehaztasunak aztertu ondoren, bete-betean sartuko gara Genero Berdintasunari buruzko atalean, alde batetik, eta Energia Estrategia, Klimaren Aldeko Ekintza eta Estrategia Klimatikoa/Biodibertsitatea, bestetik. Alde horretatik, lehenik eta behin, feminismoaren auzia aztertuko dugu eta, ondoren, ekologismoaren auzia.

Arestian aipatutako guztian ikusi dugun moduan, EAJren jarrera nahiko argia da, bai aztertutako guztiagatik, bai "Genero Berdintasuna" atalaren izena beragatik. Hala ere, EAJk ezarri nahi duen markogintza-prozesuaren bidea aztertuko dugu. Lehenik eta behin, honako hau aipatzen dute: "berdintasuna gizarte demokratikoek errespetatu eta bultzatu behar duten giza eskubide bat da", eta "txertatzen denean, gizarte osoak irabazten duela". Bestalde, berdintasunaren eta Agenda 2030aren eta Basque Country Estrategiaren arteko zubia eraiki nahi dute, biak lortzeko funtsezko elementua dela uste baitute.

Era berean, honako pasarte hau erakutsi nahi nuke, EAJk genero-berdintasunari buruz duen ikuspegi utilitaristaren markoaren erakusgarri argia: "Berdintasuna, bereizteko eta hobetzeko aukera bat da, Euskadin dagoen talentu guztia ahalik eta gehien baliatzea dakarrelako. Ezin dugu gure biztanleriaren erdiaren potentziala alferrik galdu".

Aztertu beharreko beste gai bat da emakumeak jendartean duen bereizkeria egoeraren diagnostikoa bera. Alde horretatik, emakumearen aurkako indarkeria eskubideen bortxaketa da, egiturazko arazoa eta dimentsio anitzekoa ("soldata arrailarena", besteak beste) izanda. Emakumeen ezberdintasunarekin bukatzeko "EAJk emakumeen autoestimua eta autonomia ekonomikoa, soziala eta politikoa areagotzera zuzendutako prozesuak indartzen jarraituko du".

Helburu hau betetzeko desberdintasunaren estrategien markoa ezartzen dute, EAJk "intersektionalitatearen aplikazioan aurreratuko" duela esatean eta "zaintzak erdigunean kokatu behar dira. Zentzu horretan, erantzunkidetasuna funtsezkoa da etxeko lanetan eta zaintza-lanetan" adieraztean.

Hau guztia esan ondoren, hona hemen Genero-Berdintasunean EAJren proposamen esanguratsuenak:

- (7:64) Berdintasun-polituketara eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzera zuzendutako aurrekontu globala handitu.
- (7:63) Emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan erakunde arteko koordinaziorako espazioak bultzatu, emakumeen aurkako indarkeria-forma guztien aurreko prebentzioa eta erantzuna indartzeko. Eta nazioarteko organismoekiko aliantzak indartu Agenda 2030eko G.I. 5. helburua lortzeko (7:65)
- (7:67) Hezkuntzaren eremuan berdintasunean egiten den lana indartu adin goiztiarretatik, zehazki, II. Hezkidetza-plana ezarriz
- (7:68) Emakume eta nesken ahalduntzea babestu berariazko zenbait neurriren bitartez
- (7:66) Interseksionalitatean aurreratu, emakume desberdinek bizi dituzten askotariko errealitateak hobeto ezagutzeko, horrela, bere premiei erantzun hobea emateko
- (7:70) EAJk proposatzen du gurasotasun-baimen pertsonalak, besterenezinak eta ordainduak bultzatzen jarraitzea
- (7:72) Soldata-arrailaren aurkako 2030 Estrategia ezarri, Estrategian eta Plan Operatiboan jasotako neurriak sustatuz, hurrengo 4 urteetan, Euskadin, soldata-arraila % 20 murrizteko
- (7:73) Emakumeen autonomia ekonomikoa bultzatu neurri desberdinen bidez, emakumeak, lan-merkatutik kanpo utzi beharrean, lan-merkatuan sartzea, (7:77) indarkeriaren biktimen erreparaziora zuzendutako neurriak... eta Adingabeei eta menpeko pertsonen laguntzeko zerbitzuak finkatu eta indartu (7:71)
- (7:75) Enpresa-kultura berri baten aldeko estrategia abiarazi, ordutegi-malguketa eta arrazionalizazioa ahalbidetzen dituen, [...] emakumeak lan-merkatutik aldentu gabe
- (7:79) Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen berdintasunerako euskal legearen onspena arindu.

Bestalde, ingurumen-korrontearen azterketari dagokionez, EAJren Energia Estrategia, Klimaren aldeko Ekintza eta Ingurumen Estrategia/Biodibertsitatea izeneko programako atalak aintzat hartu dira. Hauetan ezarri nahi den markoa aztertzeko, lehen aipatutako klima- eta energia-trantsizioari buruzko prognosiaren hiru oinarriak aipatu behar ditugu berriro: Ekoizpen eta kontsumo

arduratsua, 2050. urterako Euskadi karbonoan neutroa izateko erronka eta energia-sistema berriztagarri eta elektrikoa handitzearen erronka.

Lehenengoa eta hirugarrena dagokionez, hurrengo markoa ezartzen saiatzen da: "Euskadi, Europar Batasuna bezalaxe, neurri handi batean, oraindik ere, erregai fosilen menpe dago eta energia irisgarri, seguru eta jasangarria hornitzeko zenbait erronka ditu". Erronka horiek 7. GIH-ekin lotzen dituzte. Erregai fosilen harira, mugikortasun-arloan kontsumitzen dugula energia gehien diote; horren aurrean, "mugikortasun garbi, seguru eta konektaturantz aurrera egitea, zehazki, pixkanaka mugikortasun elektrikoa gehituz" izango litzateke euren lehentasunetako bat. Bigarrenari dagokionez, konpromisoa hartzen dute Euskadiko industria, energia-eraginkortasunaren arloan, "Europako erreferente" bihurtarazteko. Horretarako, "lehiakorragoak eta jasangarriagoak izateko, [erregai fosilen] energia gutxiago erabiliz produkzioa mantentzea lortu" behar dugula diote.

Aztertu beharreko bigarren atala Klimaren Aldeko Ekintza da. Haren diagnostikoaren hasieran "Berotze globala errealitate ukaezina dela" diote. Euskadik bertan duen zereginari dagokionez, honako hau uste dute: "*Think global, Act local* premisari jarraituz, lehentasun global horri erantzuteko irtenbide eta erantzun lokalak bilatzeari ekiten diogu". Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko duten erantzunak energia berriztagarrien garapenean datza; horretarako, euren 2050ko Klima Aldaketaren Estrategia eta 2030erako Ekintza Plana berritzearen beharra aipatzen dute. Bukatzeko, klimaren aldeko ekintzak "hazkunde ekonomiko jasangarriagoa lortzeko aukerak sortuko dituela" diote.

Aztertu beharreko azken atala Estrategia Klimatiko eta Biodibertsitatea da. EAJk era honetan markogintza-prozesuari ekiten dio: "80ko hamarkadan Euskadik aurre egin behar izan zien herritarren osasuna eta ingurumenaren egoera orokorra mehatxatzen zuten kutsadura arazo larriei". Hori dela medio, "ingurumena babesteko politikak" aplikatzen hasi zirela diote. Euskadi "politika klimatikoaren abangoardian" egotea lortuz. Baieztapen horren harira, Euskadik "posizio ona duela Klima Errendimenduaren Nazioarteko Indizean" adierazten dute.

Bestalde, esan dute "ingurumen erronka batzuk gaur egun duten ezaugarria konplexutasun eta ziurgabetasun handiko eta izaera interdependenteko arazoak izatea da, hala nola biodibertsitatea eta klima aldaketa". Horri dagokionez, beharrezkotzat jotzen dute "ingurumen-politika berri baterantz aurrera egitea". Ildo beretik, "Ingurumena Euskadin araubidezko esku-hartze espeziakoetatik ingurumenaren dimentsioa beste politika sektorialetan integratzera pasatu da, iraunkortasun ikuspegi zabalagoa" eman diotela diote.

Hiru atal hauen markoak xehetasun osoz aztertu eta landu ondoren, hona hemen EAJren klima-aldaketari buruzko proposamen esanguratsuenak:

- (7:18) Suspertze ekonomikoaren eta iraunkortasunaren ardatzean, EAJk trantsizio energetikoa eta ingurumenekoa bultzatuko du bereziki, “Europa Green Deal” eredu hartuta. I+G hautua areagotuko dugu
- (7:19) EAJk proposatzen du Klimaren aldeko “Basque Green Deal” eta “hitzarmen honek hazkuntza ekonomikoa eta ingurumenaren babesa batuko dituela (7:24)
- (7:108) Energia berriztagarrien ekoizpena eta erabilera bultzatu, ekonomiaren eta ingurumenaren iraunkortasun irizpideekin; (7:91) EAJk proposatutako xedea da 2024rako energia berriztagarrien erabilera bikoiztea, Horretarako ibilgailu elektrikoak edo gasezko ibilgailuak azkar kargatzeko guneen instalazioa bultzatzeko programak indartu nahi ditu (7:93)
- (7:96) EAJk “bonu jasangarrien” programa bat abian jartzea proposatzen du, herritarren artean iturri berriztagarriek, hau da, ziurtagiri energetiko berdearekin produzitutako energia elektrikoaren kontsumoa bultzatzeko eta saritzeko.
- (7:99) EAJk proposatzen du Trantsizio Energetikoko Lege bat onestea. (7:107) Itun sozial baten bidez
- (7:110) EAJren hautua bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko Euskal Herriko Burdinbide Sare berria bultzatzea da. (7:111) Ibilgailu efiziente eta emisio gutxikoetan inbertitzeko laguntza programak indartuz
- (7:115) EAJk klimarekiko ekintzarekin eta ekonomia zirkularrarekin erlazionatutako Ekoberrikuntza Proiektuak indartzea planteatzen du
- (7:117) EAJk Euskadiko klima aldaketaren legea onartu eta aplikatzea proposatzen du. Esparru honetan politika eta estrategia sektorialak garatuko dituen arau esparru bat egiteko konpromisoa hartzen dugu,
- (7:119) EAJk 2050ean klimarekiko neutraltasuna lortzeko estrategia bat bultzatuko du.
- (7:132) Foru aldundiekin elkarlanean zerga politika berde oso bat egin behar da. Europar Batasunarekin lerrokatuta.
- (7:135) EAJk 2030erako Euskadiko V. Ingurumen Esparru Programa onartu eta abian jartzea proposatzen du, 2030erako Europako Ingurumenerako VIII. Ekintza Programa berriaren ildotik.

4.3 Euskal Herria Bildu

Euskal Herria Bilduren hauteskunde-programa Covid-19aren pandemiak eragindako krisiari erreferentzia egiten hasten da. Ostean, etor litezkeen krisiei egiten diete erreferentzia, aldaketa klimatiko eta “neoliberalaren noraeza geldiaraztea lortzen” ez bada; eta, batez ere, “erdigunean bizitzaren zaintza jarriko duen sistema bat eraikitzea” lortzen ez bada. Azkenengo honek, “biodibertsitatea eta pertsonen bizitzak errespetatzen dituen eta planetako baliabide naturalen mugak kontuan hartzen dituen sistema” baten zentzuan ulertzen dutela diote. Era honetan, ekologismotik sistema eraldatu dezakeen marko bat ezarri nahi dute

Bestalde, makroegitura formalaren gaiari dagokionez, beren hauteskunde-programako gaiak hainbat aditzen inguruan egituratzen dituzte: *Eraiki* (enpleguaren, fiskalitatearen eta ekonomiaren gaiari dagokionez), *Zaindu* (gizarte-politikak), *Duindu* (osasuna, hezkuntza...), *Mugitu* (energia eta klimari, ingurumenari, mugikortasunari...), *Babestu* (indarkeriaren, justiziaren eta segurtasunaren erreparazioari dagokionez), *Jauzi* (autodeterminazioa...), *Bat Egin* (feminismoa, LGTBI kolektiboa...), eta *Saretu* (nazioarteko politikari, komunikabideei...). Orden honi jarraituz, lehenik gai ekologista aztertuko dugu, eta, ondoren, feminista.

Gai-multzoak zenbait aditz *propositibot*an egiten zuten bezala, bloke bakoitzaren egituraketak hurrengo egitura aurkezten: lehenik, egungo egoeraren “Diagnostikoa” egiten da, gero “Datu Esanguratsu” batzuk ematen dira, eta, azkenik, “2024rako Konpromisoak” eskaintzen dira. Gai ekologikoari dagokionez, EH Bilduren markoa hibrido gisa aztertu genezake, marko teorikoan azalduko korrante ekologisten eta ingurumentalisten arteko sinbiosi asimetrikoa (ekologismotik gertuago baitaude ingurumentalistotik baino) legez.

Diagnostikoa larrialdi klimatikoari erreferentzia eginez hasten da, “sistema ekonomiko nagusiaren paradigma zaharra errotik aldatzeko” beharra azpimarratuz. Sistema ekonomiko berri hori “herritarren partaidetzatik eta herriaren kontrolatik” (ekosozialismo *beltza*) etorri beharko liteke, “energia eredu berriztagarrien erabiltzearen” (ingurumentalismoa) aldetik; eta “oinarriko energiaren erabilera murriztetik” (ekologismoa) etorri beharko luke ere, hau da, desazkudetik. Bukatzeko, honako hau aipatu dute: “bidegurutze historiko baten aurrean gaude, okerreko bidetik jarraitzea edo hazkundearen paradigma aldatzea ingurunearen kontura (ekologismoa), benetan iraunkorra eta bidezkoa den garapen (ingurumentalismoa) baten alde”.

Lurraldetasunaren, Azpiegituren Eta Mugikortasunaren kudeaketaren gaia aztertzean, ekologismoaren eta ingurumentalismoaren arteko bereizketari aipamen zuzena egiten diote. Bere hitzetan, "inoiz baino arrakala handiagoa nabaritzen da Eusko Jaurlaritzaren diskurtsoaren eta benetan aurrera eramaten dituen ekintzen artean". Jasangarriak izan nahi duten planak aipatzen dituzte, hala nola "Bultzatu 2050 hiri-agenda". Zentzu horretan, "diskurtso ofizialean dena "berdea" izan arren, errealitatean egiten ari den eta egin nahi dituen proiektu zehatzak antzinako ikuspegi garapen-zalearen betiko logikan daude pentsatuta", "Euskal Hiria" kontzeptuan kondentsatuta: AHT, Zubietako erraustegia, Supersur eta Donostiako metroa jarri dituzte adibide gisa

Hona hemen klimari, energiari, biodibertsitateari, klima-aldaketari, lurralde-antolaketari, azpiegiturei eta mugikortasunari buruzko proposamen aipagarrienak; korrante ekologistan eta ingurumentalistan identifikatuko ditudalakoak:

Ingumentalistik proposamenak

- (8:9) Larrialdi klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren legea onartu.
- (8:12) Energia Berriztagarrien Euskal Erakundearen osatzea (EVER).
- (8:13) Baliabide fosilen Desinbertsio Plan Integrala; energia berriztagarriak hedatzerako baliabideak lortzeko eta (8:14) Jasangarritasun energetikoaren legea garatu
- (8:15) Energia komertzializatzaile publikoa osatu
- (8:16) Natura Ondarea Kontserbatzeari dagokiona eta Ingurumen Administrazioari buruzko Lege berriak onartu; jarduera ekonomikoak ingurunearekin bateragarri eginez

Ekologismotik proposamenak

- (8:10) Klima neurrien jarraipenerako departamendu arteko batzordea eratu
- (8:11) "EUSKADI ZERO KARBONO 2040" Klima konpromisoa.
- (8:17) Natur Ondarearen erresilientzia sendotuko duen eta ekologikoki funtzionala izango den azpiegitura berde-urdina eratu, lurralde osoa sare ekologiko moduan egituratuz, degradatutako ekosistemak lehengoratzu eta inguruko lurraldeekiko irazkortasuna bermatuz.
- (8:19) Natur baliabideen ustiaketa mota guztiak antolatu eta naturaren babeserako praktikekin bateragarriak direnak bakarrik bultzatu

- (8:20) Ustiaketa eredu berriak bultzatu, ekosistemen oreka mantentzeko eta epe luzerako begiradari eutsiko diotenak
- (8:22) Bioaniztasunaren eta natur ingurunearen ikerketan sortzen den ezagutza berria integratu eta natur kontserbazioaren mesedetan modu esanguratsuan bideratzeko
- (8:25) Tokiko garapen endogenoko proiektuak alor guztietan sustatu, “ekonomia soziala” delakoaren parametroetan
- (8:26) Lehen sektorerako (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza...) lurzoruak babestu eta antolatu; ekoizpen bolumenen kontrolerako politika bat sortuz
- (8:28) Merkataritza-gune handien eraikuntza mugatu eta (8:30) Tokiko elikagaien merkataritza eta kontsumo plana

Ondoren, feminismoaren gaiari heltzeko, Teoria Politiko Feminista plurala, konplexua eta askotarikoa dela esaten genuena berreskuratu behar dugu. Izan ere, ekologiaren auziarekin gertatzen den bezala, EH Bilduren jarrera feminismoari dagokionez, lehen azaldutako berdintasunaren feminismoaren eta aintzatespenaren feminismoen artean dago. Hauteskunde-programaren egitura berriro aintzat hartuta, *Bat Egin* izeneko *Feminismoaren eta Sexu- eta genero-aniztasunaren* atalak aztertuko dira.

Hori horrela izanik, Feminismoaren Diagnostikoan ezartzen duten markoa da, Covid-19ak eragindako egoera pandemikoaren ondorioz, "eskubideek eta berdintasunean atzerakada larria izateko mehatxu-egoeran" gaudela; eta "sistema, eta ez krisia, arazoa izanik". Bestalde, Sexu- eta genero-aniztasunaren Diagnostikoan "LGTBI kolektiboaren ikusgarritasuna eta eskubideen borrokatu indartu egin dela azken urteotan" aipatzen dute. Aldiz, tamalez, oraindik askotariko diskriminazio daudela eta "disidente sexu-generikoek", hau da esparru heteronormatibotik kanpo dauden pertsonen, ez dituztela eskubide berberak diote.

Hari beretik jarraituz, EAEko erakundeek politika "erabat urriak eta koordinaziorik gabeak" jarri dituztela aipatu dute, eta horiek, "helburu argirik eta baliabide zehatzik" izan gabe, kolektiboaren eskaera garbiak "alde batera utzi" dituztela diote. Izan ere, sistema bera, iruzurrezko leloen bidez, "aspalditik ari da LGTBI identitateak helburu ekonomiko hutsarekin erabiltzen". Ildo horretatik, uste dute beharrezkoa dela "krisiaren eraginaren ezagutzan sakontzea, LGTBI pertsonen egungo behar eta errealitateei ikuspegi feministatik eta eskubideen ikuspegitik helduko dieten politika integralak proposatu ahal izateko"; "kolektiboko pertsonen eskubide guztiak defendatuko" dituztela diote.

Hortaz, hona hemen feminismoari eta sexu- eta genero-aniztasunari buruzko proposamen aipagarrienak; Auzi ekologistaren erara, berdintasunaren feminismoaren eta aintzatespenaren feminismoaren korronteak identifikatuko ditudalakoak:


Berdintasunetik proposamenak

- (8:37) Diru-sarrerak Bermatzeko Legea erreformatzea eta (8:42) Soldata-arrakalaren aurkako estrategia integral bat abian jartzea
- (8:40) Hezkidetzeta Sailburuordetza bat sortzea eta Hezkidetzeta [Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez] Plan Integral bat definitzea
- (8:44) Administrazioan Plan Estrategiko bat diseinatzea eta gauzatu, Sail guztietan egitura feministak sortuko dituen
- (8:45) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lege berri bat aurkeztu eta (8:47) Indarkeria matxisten biktimen erreparaziorako Plan Estrategikoa aurkeztu
- (8:50) Osasun-arloan, sexu- eta ugalketa-eskubideak eta abortatzeko eskubidea bermatu emakume guztiei

Desberdintasunetik proposamenak

- (8:36) Lege berri bat aurkeztea, zaintzen unibertsalizazioa eta aukera askea bermatzeko. Eta (8:41) lege bat aurkeztea, aintzatespenik eta balioespenik gabe familia-eremuan zaintzan urteetan lan egin duten emakumeak konpentsatzeko.
- (8:46) Indarkeria matxisten aurkako Behatokia aurkeztu, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak aztertu [...] eta horiei aurre egiteko ikuspegiak proposatuko dituen
- (8:49) Adin guztietako emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiborako beharrezkoak diren baliabideak eta espazioak aktibatu
- (8:59) Eusko Jaurlaritzan sexu- eta genero-aniztasunari buruzko zuzendaritza espezifikoa bat sortu eta (8:63) Hezkidetzako [sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez] Plan Integrala bultzatu
- (8:60) Transen despatologizazioaren eta diskriminazioaren aurkako legea garatu eta (8:61) EAEko LGTBI Behatokia diseinatzea eta martxan jarri

4. Irudia. EHB-ren zuhaitz ideologikoa



Iturria: Egileak eginda

4.4 Elkarrekin Podemos – Ezker Anitza

Elkarrekin Podemos - Ezker Anitzaren hauteskunde-programa itxaropenez betetako baieztapen batekin hasten da: "Beste Euskadi bat posible da". Euskadi berri horrek "askatasuna, demokrazia eta berdintasuna" luke oinarri. Hasiera horren ondoren, jendarte-mugimenduen lorpenak balioesten dira (feminista edo pentsiodunena, besteak beste), baina "prekariatateko, desperekotasuneko eta pobreziako egoerak bizitzen ari baitira oraindik" ahaztu gabe. Ondoren, Koronabirusak eragindako egoera aipatzen da. Egoera horretan, koalizioak "normaltasun berrira" itzultzeko "tresna egokiak" eskaini nahi ditu, "ez daitezten klase sozial xumeak eta langileak izan, berriro ere, krisialdiaren ondorioak jasan behar izango dituztenak".

Horretarako, Euskadik "sasoi betean" egon behar dela diote, ezin baitugu lehengo normaltasunera itzuli; "prekariatatea, desperekotasuna eta kutsadura nagusi" zirenen normaltasun horretara. "Zeren betiko errezetekin, hau da, murrizketen, pribatizazioen eta deslokalizazioen errezeta horiekin ez dugu aurrera egingo". Buelatzeko "Aliantza bat eratu" behar dugula diote, "larrialdi klimatikoari erreparatzeaz gain" "produkzio-eredu berde bateranzko bide" bateari ere jo behar diogula diote.

Bide beretik, "askatasuna, demokrazia, berdintasuna, feminismoa eta euskaldunon autogobernua lortzeko borrokarekin tematuta" daudela diote, "Euskadi feminista, parekidea, inor atzean utziko ez duena eta giza bizitzen eta lurraldearen jasangarritasunean" ardatz pean egongo dena. Hau guztia izango litzateke, hain zuzen ere, EP-EA-ren sarreraren laburpena, auzi ekologistan eta feministan hala nola gobernagarritasunean euren posizioa identifikatu genezakeena. Halere, azterketa sakon bati ekingo diogu.

Planteatu dugun azterketa urratsei jarraituz, gainegitura formalaren analisia uztartuko dugu. Elkarrekin Podemos – IU koalizioaren aurkibideak era honetan lantzen ditu gaiak: *Izan Nahi Dugun Euskadi: m15etik uztailaren 12ra* (arestian landu dugun sarrera), *Koronabirusaren Ondoko Txoke Plana: 15 neurri COVID-19aren krisialdiaren aurrean* (euren proposamenen ardatzak eta proposamen nagusiak adierazten duten atala), *Horizonte Berdea Eta Industria-Eredu Berria* (auzi ekologista aztertzeko landuko dugun atala), *Horizonte Morea Eta Zaintza-Lanen Ekonomia* (auzi feminista aztertzeko erabiliko dugun atala), *Horizonte Digitala Eta Ekonomia Berria* (zientziaren esfera jorratzen duten atala), etab.

Elkarrekin Podemos – IU koalizioaren hauteskunde-programaren sarreran eta aurkibidean ikusi ahal izan dugun bezala, auzi ekologista eta feminista lehentasuna dute euren ekoizpen ideologikoan. Argudio horretan gehiago aurrera egiteko, Koronabirusaren Ondoko Txoke Plana atalean jorraturiko gai garrantzitsuenei buruz arituko gara orain.

Atal honen sarreran “COVID-19aren krisialdiaren ondorioz, egiturazko arazoak larriagotu” direla diote; tokiko arazoak hala nola arazo globalak ikustaraziz, “biodibertsitatearen galera” eta “larrialdi klimatikoa” besteak beste. Aliantzaren garrantziari berrekiten diote, hurrengo hiru ardatzetan oinarrituz: ardatz morea (“zaintza-lanak birbanatzeko eta desparekotasunaren kontrako borrokaren bermetzat”), ardatz gorria (aberastasuna birbanatzearen alde) eta ardatz berdea (“trantsizio ekologikoaren bidean aurrera egin ahal izateko beharrezkoak diren erreformak egiten hasteko”).

Hortaz, eskaini nahi duten markoa desberdintasunaren korrontean, zaintza lanen aitortpenagatik; eta ekologismoaren korrontean, trantsizio *ekologikoa* helmuga izateagatik, kokatzen da. Bestalde, atal honetan hainbat proposamen esanguratsu adierazten dituzten arren, beste ataleko guztiekin batera lantzea hautatu dut.

Orduan, Elkarrekin Podemosen - IUren hauteskunde-programa Teoria Politiko Ekologistatik abiatuta aztertuko dugu. Horri dagokionez, aurreratu behar dut koalizioaren kokapena, Euskal Herria Bildurekin bezala, korronte ekologisten eta ingurumentalisten erdibidean dagoela. Atal honetan, besteak beste, ekoizpen-ereduaren eta ekonomia zirkularraren eraldaketa, energia garbiak eta eraginkortasun energetikoa eta mugikortasun jasangarriaren gaiak landuko ditugu.

Atalaren sarreran ezarri nahi den marko ekologista “gure gizarteak duen erronka nagusietako bat klima-aldaketa da” esaldiarekin hasten da. Gero, Covid-19aren gaiari bueltatzen dira, “akademiaren, ikerkuntzaren eta ingurumen-aktibismoaren arloetako jende askok aipatu du biodibertsitatearen galerak lotura handia duela bizi izan dugunaren antzeko pandemien ugaritzearekin” adierazteko. Biodibertsitatea galtzea, besteak beste, CO₂-aren emisioen ondorioa dela azaldu dute.

Horri dagokionez, zientzian finkatzen dira, honako hau jakinarazteko: "edo bat-batean murrizten ditugu CO₂ emisioak, edo itzulerarik gabeko bide batean sartzen gara, eta klima-aldaketaren ondorioak larriak eta itzulezinak izango dira". Beraz, "legealdi honetako zereginik garrantzitsuena eraldaketa berderantz aurrera egitea da".

Halere, marko ingumentalista ere eskaintzen digute “neurri ausartak behar ditugu, galdutako mailak berreskuratzea [hazkundearen eredia antzematen dut nik hemen] ez ezik, gure industriaren eraldaketa berdea lortzea” dela euren gakoa adieraztean edota “karbono gutxiko [baina ez iturri-energitiko oro] ekonomia baterantz bideratzeko beharrezkoa den trantsizioan; horretarako, ekonomia zirkularraren bidean aurrera egin beharko” dela esatean.

Honen ostean, gaur egungo kontsumo eta ekoizpen ereduaren diagnostikoa egiten dute: “gure ekonomia-sistema, etekin ekonomiko berehalakoak, gero eta handiagoak eta iraunkorrak sortzeko helburuarekin”, kontsumoaren azelerazioan oinarritzen da, “baina kontuan izan gabe prozesu horretan guztian behar diren lehengaiak mugatuak direla” ezta “produkzio-prozesuak eragiten duen ingurumen-inpaktua”.

Kontrara, desazkunde gisa identifikatu dezakegunarekin, “pertsonek oinarritzeko premiak eta beharrak asetzeko horretan ahalik eta baliabide gutxien kontsumituz (efizientzia materiala eta energetikoa), ahalik eta epe luzeenerako (iraunkortasuna) eta ahalik eta hondakin gutxien sortuz (produkzio garbia, ekonomia zirkularra)” oinarrituko eredu sinesten dute.

Orduan, arestian egin dugun legez, korrante ekologistarekin eta ingumentalismoaren korrantearekin lotzen ditudan Elkarrekin Podemos – IUko proposamen esanguratsuenak ekarriko dituzte:

Ingumentalismoaren proposamenak

- (11:44) Klima-aldaketaren aurkako Euskal Ekintza Legea sortu eta garatzea, karbono gutxiko ekonomia baterantz aurrera egiteko bidea ezarriko duena
- (11:50) Elkarrekin Podemos-IU koalizioarekin Euskadi osorako itundutako Jasangarritasun Energetikoaren Euskal Legea dagokion garaian eta moduan aplikatzen dela bermatuko dugu, biltzen dituen eremu guztietan: industrian, administrazio publikoetan, saltokietan eta etxebizitzan.
- (11:56) Gaur egungo mugikortasun-eredua berraztertuko dugu, ibilgailu pribatuaren eta errepide bidezko garraioaren nagusitasunean oinarritzen delako; erregai fosilak ez diren beste teknologia alternatibo batzuk dituzten garraiobide kolektibo motordunak sustatuko ditugu
- (11:57) Auto elektrikoaren ezarpena bultzatzeko inbertsio-lerroak eta laguntza publikoak ezarriko ditugu
- (11:58) Donostiako Aldirietako C1 linean hobekuntzak: geltoki berriak Astigarragan, Ezkio-Itxason (euskal Y-aren obrak baliatuta) eta Loiolako Erriberetan

Ekologismoaren proposamenak

- (11:45) Berrindustrializazio berdeko eta ekonomia zirkularreko estrategia ezarriko dugu, ingurunean eragin positiboa duten industrietan eta kutsadura, baliabideak eta biodibertsitatea kudeatzeko jardueretan lana sortzeko asmoz

- (11:46) Ekonomia zirkularraren legea onartzea bultzatuko dugu; lege horretan, besteak beste, «zero hondakin» helburua argi eta garbi ezarriko da, erabili eta botatzeko plastikoak debekatuko dira, zaharkitze programatua kontrolatuko da, berrerabiltzearekin eta birziklatzearekin lotutako helburu handiak ezarriko dira
- (11:48) Kontsumitzaileei zuzendutako kontzientziazio-kanpainak diseinatu eta abiaraziko ditugu, baita, batik bat, produktoreei zuzendutakoak ere, Ekonomia Zirkularraren garrantziaz jabetu daitezen
- (11:49) Industrian energia aurrezteko eta energia-efizientziako plan intentsiboa lantzea eta ezartzea sustatuko dugu eta, aldi berean, energia-sistema deszentralizatua garatuko dugu Euskadin, energia berriztagarri eta jasangarrien garapenera bideratuta, Trantsizio Energetikoko Plan baten bitartez.
- (11:51) Energia sistemaren demokratizazioa indartuko dugu, autokontsumoaren, partekatutako sorkuntzaren eta energia-kooperatiben bitartez
- (11:52) Alderdi politikoen eta sindikatuen artean adostutako plan bat garatu eta abiaraziko dugu egungo produkzio-eredua eraldatzeko, pertsonak, ingurunea eta lurraldea ardatz dituen ekonomiaren garapeneredu baterantz.
- (11:54) Energia-kontsumoa murrizteko programak abiaraziko ditugu, energia aurrezteko

Feminismoaren gaiari helduz, “Euskadin tradizio luzea duen mugimendu feministak goraldia izan du [...]: herrialde feminista gara, eskubideen herrialdea, emakumeak geldiezinak garen herrialdea eta feminismoak kontzientzia soziala irabazi duen herrialdea” hasten dira euren markoa ezartzen. Horren harira, “goraldi horrek gure sisteman sortzen diren desparekotasunak desagerraraztea, gure eskubideak babesten eta blindatzen dituzten politika publikoen bitartez” eskatzen duela diote.

Ondoren, desparekotasun horiek gehien pairatzen dituzten emakumez ere ohartzen dira: “bereziki, emakume migratuak, emakume lesbianak, emakume transexualak, emakume arrazializatuak, haurrak bakar-bakarrik hazten dituzten eta zainketak bakardadean egiten dituzten emakumeak”. Erakundeak “sektore feminizatuen kristalezko sabaiak eta lurzoru itsaskorrek ere puskatu behar” dituztela esanez jarraitzen dute. “Zeren berdintasunik gabe ez baitago justiziarik ezta gizarte bidezko eta demokratikorik”. Testuinguru honen aurka “gure mugimendu feministak horizonte morea proposatzen” digula adierazten dute, “emakumeek indarkeria matxistak pairatzeari utziko” dioten jendartea.

Bestalde, Koronavirusaren gaiari berriz ere heltzen diote geure “zaintza-sistema krisialdian dagoela” aitortzeko. Izan ere, “gure ongizate-estatua, *euskal oasia* esaten zaiona, emakumeek egindako lanean oinarrituta eraiki da, aitortu gabeko, ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanean oinarrituta”. Horren aurka “gizarte baten oinarriak berreraiki behar” direla diote, “baldintzak duin bihurtzeko borrokan, zaintza-lanak demokratizatzeko eta lan horiekiko erantzunkidetasun komunitarioaren aldeko borrokan” alde eginez. Bukatzeko, “hobeto bizitzeko ezinbestekoa delako zaintza-lanak eskubide eta politika publikoen agendaren erdigunera eramatea” adierazten dute. Hau guztia, duda barik, desberdintasunaren estrategiaren koordinatuetan kokatzen dut.

Hortaz, hona hemen Elkarrekin Podemosen, auzi feministaren arloan, proposamen esanguratsuenak:

- (11:74) Zaintza-lanak euskal herritarren bizi osoko eskubide subjektibotzat hartuko ditugu, bizitzaren etapa bakoitzean eta egoera bakoitzean berezkoak diren beharrak aintzat hartuta
- (11:75) Zaintza-lanen Euskal Sistema publikoa, doakoa, integrala, integratua eta unibertsala abiaraziko dugu [...] eta (11:76) Zaintza-lanak antolatzeke eredu demokratiko, jasangarri, solidario eta erantzunkide bateranzko trantsizioa sustatuko dugu
- (11:77) “Elkarrekin Zaintzen” plana onartuko dugu: zaintza-lanak edo lan profesionalak demokratizatzeko eta banatzeko plana da, zaintza-lanak gizartean beste modu batera antola daitezen ikuspegi eraldatzaile eta erantzunkide batetik begiratuta
- (11:82) Euskadi feminista bat nahi dugu eta, horretarako, Estatutu feminista bat behar dugu
- (11:83) Berdintasunerako Legearen erreforma sustatuko dugu, indarkeria matxisten aurkako borroka integrala txertatuta eta (11:88) “Pobreziaren feminizazioari” aurre egiteko estrategia bat prestatuko dugu
- (11:84) Emakumeen eskubideak eta askatasunak, duintasuna, osotasun eta ongizate fisiko eta mentala eraginpean egon daitezkeen kasu guztietan, emakumeen erabaki librea erabakigarria izateko neurriak hartuko ditugu
- (11:85) EAEn, emakumeentzako Ahalduntze Feministako Eskola sortzea sustatuko dugu
- (11:86) Emakume-elkartek eta elkarte feministek politika publikoen diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan parte hartzea sustatuko dugu

4.5 Partido Popular – Ciudadanos

Azkenik, bete-betean sartuko gara Eusko Legebiltzarrerako 2020ko hauteskundeetan ordezkari izan zuen azken talde politikoa aztertzerako: Alderdi Popularrak eta Ciudadanos-en koalizioa. Bere programari dagokionez, hemen aztertutako guztietatik luze-erik txikiena duena dela esan behar dut (70 orrialde inguru, bi zutabetan antolatuta), eta, PSE-EE alderdia bezala, gaztelaniaz bakarrik aurkitu dudala.

Egitura formalari dagokionez, programa hau gai hauen inguruan antolatzen da: Administrazioa eta Autogobernu Eraginkorra Herritarren Zerbitzuan, Euskadi Espainiako Motor Ekonomikoa (Guk Azpiegiturak eta Garraioak azpiatalera joko dugu ekologismoarekin duen loturagatik), Aukera Berdintasuna Euskal Herritar ["ciudadano vasco"] Guztientzat (Berdintasuna azpiatalari arreta jarriko diogu feminismoarekin harreman zuzena duelako), Hezkuntza Eta Kultura Askatasunean eta Garapen Jasangarriarekin Konprometituak (Energia eta Klima-Aldaketaren, eta Ingurumenaren azpiatalak aztertuko ditugu bereziki).

Alderdi Popularraren eta Ciudadanos koalizioaren markogintza-prozesua gaur egungo osasun-krisia (2020 eta 2021) aipatuz hasten da. Krisi hori COVID-19 gaitza eragin du, eta "Euskadi une kritikoan" eta "Pedro Sánchezen eta Iñigo Urkulluren gobernuen kudeaketa eskasaren ziurgabetasunez beteta" utzi duela diote. Horren aurrean, koalizioak "Euskadin nazionalismoaren ezinbesteko alternatiba konstituzionalistatik eraikitzeko gai den" proiektua bultzatu nahi du. "Askatasunen eta pluraltasunaren defentsarekin konprometitutako" alternatiba, 78ko Espainiako Konstituzioaren esparruan pean. Era laburrean, hori izango litzateke hauteskunde-programaren sarrerako marko nagusia. Hala ere, ez da inoiz aipatzen ekologiaren edo feminismoaren inguruko auzirik.

Beste alderdi batzuek ez bezala, PP+Cs koalizioak ez du diagnostikorik egiten, ez du oso testuinguru multidimentsionala planteatzen, eta ez du prognosi esparrurik eskaintzen ere bere proposamenak kognitiboki legitimatzeko. Hori kontuan hartuta eta lehenago aurreratu dugun moduan, lehenbizi ekologiaren auzia aztertuko dugu eta, ondoren, auzi feministari helduko diogu.

Garapen Jasangarriarekin Konprometitutakoen atalaren hasieran, gaur egun EAEn dauden politika garrantzitsuenak berrikusten dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Klima Aldaketaren Estrategia - KLIMA 2050, Euskadiko Energia Estrategia 2030 eta Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Iraunkortasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea azpimarratzen dira beste askoren gainera; klima-aldaketa kudeatzeko erregai fosilen erabilera eta berotegi-efektuko gasen isurketa murrizteko. PP+Cs koalizioak ezartzen duen marko inplizitua oso ondo lotu daiteke korrante ingurumentalistarekin.

Bestalde, ingurumenaren auzia Azpiegiturak eta Garraioak azpiatalean ere aztertzen da. Besteak beste, euskal Y-arekin aipatuko nuke, proposamen berean azpiegituren garapena "euskal gizartearen beharra" dela dioen justifikazioa ere erantsi baitute. Beste une batean, "trenbidea etorkizunerako aukera gehien dituen gaitasun handiko garraiobidea" dela diote. "Gure hiriak modernizatzen lagun eta ingurumena errespetatuz" dezaketelako.

Hau guztia aztertu ondoren, hona hemen ingurumentalismoari buruzko proposamen esanguratsuenak:

- (12:3) AVE Euskadira "Euskal Y" iristea babesten dugu, azpiegitura modernoa eta ingurumenaren aldetik iraunkorra baita
- (12:6) Trena euskal herritarren eguneroko garraiobide bihurtuko dugu, eta azpiegitura modernizatuko dugu, merkantzien garraio eraginkorrera egokituz.
- (12:18) Ibilgailu elektrikoetarako karga-sare bat sustatuko dugu, Euskal Autonomia Erkidego osoan ornodun hornidura bermatzeko, egungo hornitegiak erabiliz.
- (12:19) Klima Aldaketaren aurkako Euskal Legea egitea bultzatuko dugu. Proiektu horrek 10 urte daramatza egiteke, Lopezen Gobernuak 2010ean iragarri zuenetik
- (12:20) Energia-, industria- edo berokuntza-instalazioen ordezkapena edo modernizazioa sustatzen jarraituko dugu, energia-kontsumoa eta emisioak murrizteko.
- (12:21) Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Lege Orokor berria bultzatuko dugu

Bestalde, PP+Cs koalizioaren jarrera ekologismoaren auziari dagokionez argia bazen, feminismoaren gaiari dagokionez, are argiagoa da. Berdintasunaren izeneko azpiatalak honako hau dio hasieran: koalizioak "gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzeko lan egiteko konpromiso irmoa hartzen du". Izan ere, "orain arte lortutakoa ezin da gutxietsi", nahiz eta oraindik "erronka asko dauden aurretik". Gainera, adierazten dute "emakumeok eta gizonok askatasun eta aukera berak izan behar ditugula gure bizi-proiektua berdintasun-baldintzetan garatzeko". PP+Cs koalizioaren arabera, berdintasuna "noraino iristeko askatasuna, bai profesionalki bai pertsonalki" da. Halere, desberdintasunaren estrategia bitan erabiltzen dute euren proposamenetan:


- (12:16) Ordaindu gabeko zainketa-lanak ikusarazteko eta balioa emateko jarduketak sustatuko ditugu.

- (12:17) LGTBI kolektiboko pertsonen eskubideak defendatuko ditugu eta sexu-orientazioagatiko, identitateagatiko eta/edo genero-adierazpenagatiko diskriminazioaren aurka borrokatuko gara.

Beraien markoa horrela ezarri ondoren, hona hemen berdintasunari buruzko proposamen esanguratsuenak:

- (12:1) Soldata-arrakala murrizteko Estrategia eta Plan Operatiboa berrikusiko ditugu Euskadi mailan
- (12:12) Indarrean dagoen Berdintasunerako Legea aldatzea sustatuko dugu, egungo gizarteak benetako berdintasun eraginkorra lortzeko dituen erronkei erantzuteko
- (12:13) Genero-indarkeriari buruzko lege bat egingo dugu, eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko programak indartuko ditugu
- (12:14) Enpresak bultzatuko ditugu kontziliazio-neurriak ezartzen eta hitzarmen kolektiboetan eta enpresa-akordioetan berdintasunaren alde egiten
- (12:15) Emakumea ekonomia- eta lan-jardueran erabat sartzearen aldeko plan espezifiko bat egingo dugu.

6. Irudia. PP/Cs-ren zuhaitz ideologikoa



Iturria: Egileak eginda

5. ONDORIOAK

Atal honetan, ikerlanean ateratako ondorio nagusiak identifikatu eta laburbilduko ditugu. Azterketa arloan egin denari buruzko analisia jaso ondoren, lortutako emaitza esanguratsuenak azalduko dira. Ondorio horiek alderdi nabarmenari erreparatuz aztertuko ditugu, eta, aldi berean, ikuspegi orokorra emango dugu. Horrela, lan honetan plazaratutako ikerketa-helburuak eta -galderak jorratutako dira ikuspegi teorikoa eta metodologikoa lotuz eta erlazionatuz.

Horretarako, berriro aipatu behar dugu gure lehen ikerketa-galdera: **Nola ordezkatu dituzten EAEko alderdi politikoek gai ekologistak eta feministak beren hauteskunde-programetan?** Galdera hori honako ikerketa-helburuari lotuta zegoen: **Ezagutu nola EAE-ko alderdi politikoek feminismoa eta ekologismoa txertatu dituzten euren programetan.** Analisiaren atala antolatu dugun bezala, alderdi politiko bakoitzaren ondorioak aterako ditugu, betiere adierazgarriena aipatuz. Hau guztia lantzeko, alderdien markogintza-prozesuei so egingo diegu.

Hasteko, gogoratu behar dugu PSEk Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Iraunkorraren Helburuen inguruan antolatu zuela bere hauteskunde-programa. Horrek pistak ematen zizkigun feminismoarekiko eta, bereziki, ekologismoarekiko zuen jarrerari buruz. Bigarren horri dagokionez, egungo Larrialdi Klimatikoa eta ingurumen krisia aipatzen zuten, eta, aldi berean, garapen iraunkorrak politika guztiak zeharkatu behar zituela adierazten zuten, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko modu eraginkor gisa. Halaber, garapen jasangarria ekonomia berde eta lehiakorrago baterantz eraldatzeko bidea zela ere nabarmendu zuten.

Feminismoari dagokionez, PSEk berriaz aipatzen du bere programak berdintasuna zuela lehentasunezko jarduera-ardatz. Ildo horretan, PSEren ustez, berdintasuna aurrerapenaren balio unibertsala da, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna matxismoa desagerrarazteko bide bat da. Aurreko guztia laburbilduz, hurrengo hauteskunde-programaren pasarte izan daiteke, beharbada, PSE-EEK feminismoari eta ekologismoari buruz duen jarrera hobekien azaltzen duena:

«[L@s Socialistas Vasc@s nos comprometemos a...] Priorizar, como retos planteados por los ODS, tres líneas transversales: el enfoque de derechos, como punto de partida para analizar las intervenciones que se apoyan; el apoyo estratégico a la promoción de la equidad de género y la diversidad sexual como elementos claramente ineludibles y la sostenibilidad ambiental como nexos inexcusables con el ejercicio de un número importante de derechos humanos» (PSE-EE, 2020: 87)

EAJ-ren aldetik, ekologismoari dagokionez, hiru helburu nagusi bereizi izan zituen Analisi atalean: ekoizpen eta kontsumo arduratsua, 2050erako karbonoan

neutro den euskal industria izatea eta energia berriztagarri eta elektrikoaren sistema handitzea. Hiru prognosi horiez gain, klima-aldaketaren erronka handia ere aipatzen zuten, eta, aldi berean, erabat lerrokatuta zeudela 2030eko Agendaren GIH-ekin ere. Hain zuzen ere, klimaren aldeko ekintzak (arestian aipatutako helburuak lortzearen bidez) hazkunde ekonomiko jasangarriagoa lortzeko aukerak sortuko dituela adierazten zuten.

Feminismoari dagokionez, adierazi nahi duten esparrua guztiz lotuta dago berdintasunaren estrategiarekin. Beren ustez, berdintasuna funtsezkoa da Agenda 2030 eta Euskadi Basque Country Estrategia betetzeko. Era berean, emakumearen aurkako indarkeria eskubide urraketa eta egiturazko arazoa dela zioten. Alde horretatik, berdintasuna gizarte demokratiko orok errespetatu behar duen giza eskubidea dela ondorioztatzen dute.

Bestalde, EHBk ekologismoarekiko duen jarrera marko ekologistaren eta ingurumentalismoaren arteko hibridazio gisa definitu dugu. Izan ere, Larrialdi Klimatikoaren erronka historikoari ekiteko, energia-eredu berriztagarri berri baten eta oinarrizko energia murriztearen alde egiten da.

Feminismoari dagokionez, gauza bera gertatzen da; EHBk bere programan azaltzen duen esparrua berdintasunaren eta desberdintasunaren estrategiaren artean dago. Lehenengoari dagokionez, eskubideetan eta berdintasunean atzerapen larria gertatu dela aipatzen dute, mehatxu-egoeran gaudelarik. Era berean, LGTBI kolektiboaren eskubideak lortzeari ere garrantzia ematen diote. Bigarrenari dagokionez, diskriminazio anitzen inguruan dira, krisia ez dela arazoa, sistema baizik ondorioztatuz.

Bestalde, EP-EAk feminismoa kokatzeko duen modua eta gainerako alderdiena oso desberdinak dira. Bere markoak antz handia du Marko Teorikoaren atalean desberdintasunaren estrategia osatzen zuenarekin. Besteak beste, zaintza-lanaren beharraz eta hura babesteko beharraz hitz egiten duten enuntziatuak eskaintzen dituzte, bai eta emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dituzten indarkeriaz eta desparekotasunaz ere, haien "arraz" edo sexu-orientazioa edozein dela ere.

Ekologismoari dagokionez, EP-EAk marko hibridoa eskaintzen du bi korrante ideologikoen inguruan. Ekologismoaren aldetik trantsizio ekologikorako proposamena dugu, non desazkundera pertsonen oinarrizko beharrak asetzera bideratutako salgaiak ekoizteko estrategia baliozkotzat hartzen da. Ingurumentalismoari dagokionez, Trantsizio Energetikoari buruzko Lege-proposamena dugu. Bertan, ekoizpen- eta industria-ereduaren aldaketari heltzen zaio, energia erregaiak murriztuz, baina garapen-eredua bera aldatu gabe. Zehatzago esanda, honako paragrafo honek erakusten du gai honi buruz duen jarrera argia:


«Larrialdi Klimatikoaren Lege berria sortuko dugu, gure ekonomia osoan eta industria-jardueran zeharkakoak izango diren helburu handiekin, genero-ikuspegia eta epe luzeko ikuspegia txertatuta eta gure kontsumitzeko, produzitzeko eta merkaturatzeko moduan eraldaketa bizkor eta sakona eragingo duena, NBEk hitzez hitz gomendatzen duenari jarraikiz» (EP-EA, 2020: 27)

Azkenik, PP+Cs koalizioak ez ditu oso marko sakonak eskaintzen gai ekologista eta feministaren inguruan. Feminismoari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko adierazpenak dira. Zentzu horretan, berdintasuna nahi den lekura iristeko askatasuna dela uste dute; era berean, askatasuna funtsezkoa da berdintasuna lortzeko. Ekologismoari dagokionez, garapen jasangarriarekin lotutako politika guztiak aipatzen dira, eta, aldi berean, adierazten da berotegi-efektuko gasak murriztea beharrezkoa dela klima-aldaketaren aurka borrokatzeko. Proposatzen dituzten moduak mugikortasun jasangarrian sartzen direnak dira, eta uste dute premia bat (Euskal Y-aren kasuan) eta etorkizunerako aukera handi bat (bereziki, trenbidea) direla. Ildo horretan, honako aipamen hau haren ikuspegiaren adibide argia da:

«La coalición PP+Cs defiende un desarrollo sostenible de nuestras infraestructuras para avanzar hacia una sociedad más moderna, más próspera y más competitiva. Las inversiones en materia de transporte y comunicaciones nos deben equiparar a los territorios más avanzados de España y Europa» (PP+Cs, 2020: 21)

Lehenengo ondorioak landuta, bigarren ikerketa-galdera gogorarazi behar dugu: **Feminismoaren eta ekologismoaren zer korronte ideologikorekin lotu ditzakegu alderdi politikoak?** Galdera hori honako ikerketa-helburuari lotuta zegoen: **Feminismoaren eta ekologismoaren korronteak alderdi politikoek diskurtso ideologikoekin identifikatu.** Nire ondorioak aurkeztearren, egokia iruditzen zait grafiko honen bidez egitea:

7. irudia. Korronteen koadranteak



Iturria: Egileak eginda

Irudia kontuan hartuta, ondoriorik esanguratsuenetako bat korronte ideologikoekiko homogeneousuna da, gai feministetan eta ekologistetan. Adibidez, kasu guztietan ingurumenarekiko joera diskurtso eta proposamen guztietan agertu da. PSEn, EAJn eta PP+Cs koalizioan hertsiki, eta EHB eta EPn era murrizagoan. Ingurumentalista puruak definitu ditzakegun alderdiak garrantzi handia eman zieten Nazio Batuen GIH-ei, baita garapen jasangarriari ere; hala nola hazkundearen ikuspegi baikorrari. Marko Teorikoaren Eskeman adierazi nuen bezala, garapen iraunkorra kontzeptu giltzarrietako bat zen.

Bestalde, EHB eta EP-EA ditugu. Horiei dagokienez, EHBk EP-EAk baino esparru eta proposamen ekologistagoak eskaintzen dituela ondorioztatu dut. Hala ere, desberdintasun horrek ez du esan nahi EP-EA ingurumentalista har dezakegunik, beste hiru alderdi politikoetatik asko aldentzen baita. Hala ere, ingurumen-auzirako oinarrietako bat Nazio Batuek proposatutakoa zela adierazi zuten.

Feminismoaren gaia aintzat harturik, lehengo multzo berberak errepikatzen dira: alde batetik, PSE, EAJ eta PP+Cs berdintasunaren estrategiaren aldetik ditugu; eta bestetik, EP-EA eta EHB, desberdintasunaren estrategiaren aldetik. Korronte bat eta bestea bereizteko, nik honako kontzeptu hauetan jarri dut arreta: eskubideak eta berdintasuna, batetik; eta aintzatespena eta berrizendapena, bestetik. Hala ere, nire beste ondorioetako bat da korronte baten eta bestearen arteko aldea ekologismoaren kasuan baino txikiagoa dela.

Era berean, ondoriozta dezaket berdintasunaren estrategia gehien aukeratzen dutenen taldetik EAJ dela estrategia horren alde gehien egiten duena, eta PP+Cs koalizioa gutxien aukeratzen duena; azken horrek bere programan zehar behin zaintza-lanak duen garrantzia aipatzen baitu. Bestalde, azpimarragarriena EP-EA eta EHBren arteko aldea da, non EP-EA desberdintasunaren strategiaren aldeko apustu garbia egiten duen alderdia da, batez ere zaintza-lanaren zentzuan; eta EHB bi estrategia horien alde gehiago eginez, ia neurri berean.

Azkenik, hirugarren ikerketa-galdera gogorarazi behar dugu: **Zer desberdintasun edo antzekotasun diskurtsiboak daude alderdi politikoaren artean ekologismoari eta feminismoari dagokienez?** Galdera hori honako ikerketa-helburuari lotuta zegoen: **Alderdien arteko desberdintasun eta berdintasun diskurtsiboak antzematea ideologia ekologista eta feministaren baitan.** Berezitasun hauetaz mintzatzeko, pertinentea iruditzen zait hainbat kategorien bidez egitea

Ekologismoari dagokionez, funtsezko kontzeptu horietako lehena *trantsizioa* da; izan ere, alderdi bakoitzak klima-aldaketaren aurkako bere estrategia definitzen du, bere ustez trantsizioa egin behar zaionetik abiatuta: energia fosilen erabilera edo edozein energia motaren gehiegizko erabilera.

Adibidez, PSE-EEK Trantsizio Plan Estrategiko [energetiko] bidezko bat proposatzen du. Alde horretatik, EAJk Trantsizio Energetikoaren Legea ere proposatu du. EHBk ere antzeko zerbait proposatzen du, nahiz eta Klima Krisiaren egoera aipatu. Eta, azkenik, EP-EAk Trantsizio Energetikoaren Legea ere proposatzen du, baina industriaren sektorean bakarrik; izan ere, marko ekologista bat ezartzen du, trantsizio ekologikoa aipatuz. PP-Cs kasuan ez da trantsiziorik aipatzen.

Era berean, beste ondorioetako bat da alde handia dagoela garapen jasangarriaren aldekoak diren alderdien eta *desazkundearen* aldekoak direnen artean. Alde horretatik, alderdi politiko guztiak garapen jasangarriaren alde daude, neurri handiagoan edo txikiagoan; adibidez, energia, mugikortasun edo azpiegitura jasangarrien alde. Bestalde, EP-EA eta EHB-k bakarrik aipatzen dute, oso gutxitan, kontsumoa murriztearekin zerikusia duen zerbait (EP-EA, 11:49 kod.; eta EHB, 8:19 eta 8:20 kod.). Alde horretatik, Esparru Teorikoaren atalean definitzen genuen Tesi Postmaterialisten Eskasiaren Hipotesia ez da betetzen, edo, behintzat, desazkundera baliozko aukera bihurtzeko moduan.

Bestalde, feminismoari dagokienez, kontzeptu giltzarrietako bat *zaintzena* da. Funtsezkoa dela diot, diferentziaren korrontearen barruan aintzatespenaren strategiari estu lotutako kontzeptua delako. Alde horretatik, alderdi politiko guztiek, PSE-k izan ezik, zainketa-lanaren gaia aipatu dute. Desberdintasun nabariak egon dira horien artean, EP-entzako zaintzak funtsezkoak dira euren proposamenetan, EHB-k horiek unibertsalizatzea proposatu du (8:36 kod.), EAJk uste du zaintzak erdigunean jarri behar direla dio, eta PP+C-ek adierazi du ordainsaririk gabeko lanei balioa emateko jarduketak sustatuko dituztela (12:16 kod.).

Bide beretik, nuklearra den beste kategoria bat emakumeen *ahalduntzea* da. Kontzeptu hori, aintzatespenaren strategiari soilik legokiokeena, bitako korrontetako diren alderdiek erabili dute. Era berean, PSEk ahalduntze eta balio aldaketarako proiektuak babestea proposatu du (10:24) eta EAJk emakumeen ahalduntzea babestea proposatu du (7:68). Desberdintasunaren korrontetik ere ahalduntzea erabiltzen da: EHBk adin guztietako emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiborako beharrezkoak diren baliabideak eta espazioak aktibatu proposatzen du (8:49), eta EP-EAk emakumeentzako Ahalduntze Feministako Eskola sortzea sustatzea proposatzen du (11:85).

Azkenik, beharrezkoa iruditzen zait ikerketa nagusiaren galdera berreskuratzea; izan ere, arestian azaldu dudan bezala, ikerketa hau galdera moduko kezka batetik sortu da, eta galdera horren erantzunaren jakin-nahia ikerlan honek bideratu du: **Nola txertatu zituzten alderdi politikoek beren programetan gai feministak eta ekologistak 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan?** zen galdera hura.

Horri dagokionez, esan dezakegu alderdi politikoek komunikazio-estrategia nahiko antzekoak erabili dituztela eduki desberdin arras garatzeko. Ikusi ahal izan dugu nolabaiteko homogeneotasuna dagoela berdintasunaren korronteari dagokionez (Teoria Politiko Feministaren baitan) eta ingurumentalismoari dagokionez (Teoria Politiko Ekologistaren baitan). Hala ere, homogeneotasunetik haratago ere badira nabarmentzeko gauzak: adibidez, EHB-ren kokapen argia ekologismoan eta marko hibridoaren erabilera feminismoan, eta EP-EA-ren kokapen guztiz nabaria desberdintasunaren korrontean eta, berriz, marko hibridoaren erabilera ekologismoan.

BIBLIOGRAFIA

- Ahedo, Igor eta Telleria, Imanol (2020), "Neoliberalismo". Anton, Joan eta Torrens, Xavier (ed.) *Ideologías y Movimientos políticos contemporáneos*, Laugarren edizioa. Madril: Tecnos, 370-416. or.
- Anton, Joan eta Torrens, Xavier (2020) *Ideologías y Movimientos políticos contemporáneos*, Laugarren edizioa. Madril: Tecnos
- Austin, John Langshaw (1955) *Cómo hacer cosas con palabras*, Txile: ARCIS, Escuela de Filosofía. [On-line] Eskuragarri hemen: http://revistaliterariakatharsis.org/Como_hacer_cosas_con_palabras.pdf [Kontsulta eguna: 11/02/2021]
- Barcena, Iñaki (2020) "Ecosocialismo". Anton, Joan eta Torrens, Xavier (ed.) *Ideologías y Movimientos políticos contemporáneos*, Laugarren edizioa. Madril: Tecnos, 180-218. or.
- Beck, Ulrich (2002) *Libertad o capitalismo. Conversaciones con Johannes Willms*, Bartzelona: Paidós.
- Bell, Daniel (1976) *El advenimiento de la sociedad post-industrial: un intento de prognosis social*. García, Raúl eta Gallego, Eugenio (itzul.). Madrid: Alianza.
- Butler, Judith (2017) *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*. Esenciales bilduma, 2. Madril: Paidós
- Calsamiglia Blancafort, Helena eta Tusón Valls Amparo, (2012). *Las cosas del decir: manual de análisis del discurso*. Hirugarren edizioa. Ariel letraz bilduma. Bartzelona: Ariel.
- De Beauvoir, Simone (2005) *El segundo sexo*. Lehenengo edizioa. Martorell, Alicia (itzul.). Feminismos bilduma, 85. Madril: Cátedra.
- Del Rey Morató, Javier. (2011). "La comunicación política en la sociedad del marketing y de internet. Encuadres, relatos y juegos de lenguaje". *Revista de Comunicación* [On-line]. 10. 102-120. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3800461> [Kontsulta eguna: 05/02/2021]
- Del Rio, Olga (2011), "El proceso de investigación: etapas y planificación de la investigación", Vilches, Lorenzo (koord.) *La investigación en comunicación. Métodos y técnicas en la era digital*, Bartzelona: Gedisa, 67-93. or. [On-line] eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/254862769_El_proceso_de_investigacion_etapas_y_planificacion_de_la_investigacion [Kontsulta eguna: 25/01/2021]

- Dilthey, Wilhelm (2000). *Dos escritos sobre hermenéutica*. Gómez Ramos, Antonio (itzul.). Fundamentos bilduma, Agora de ideas serie, 164. Madril: Istmo.
- Dobson, Andrew (1997) *Pensamiento político verde*. Estado y sociedad bilduma, 49. Bartzelona: Paidós
- Dubet, François eta Martuccelli, Danillo, (2000) *En Qué Sociedad Vivimos?* Algasi, Jacques (itzul.). Buenos Aires: Losada.
- Entman, Robert. (1993). "Framing: Toward clarification of a fractured paradigm". Journal of Communication [On-line]. 43. 51-58. Eskuragarri hemen: https://is.muni.cz/el/1423/podzim2018/POL256/um/Entman_1993_FramingTowardclarificationOfAFracturedParadigm.pdf [Kontsulta eguna: 05/02/2021]
- Fairclough, Norman (1995) *Critical discourse analysis: the critical study of language*. New York: Longman
- Foucault, Michael (2009) *Nacimiento de la biopolítica: curso del collège de france (1978-1979)*. Pons, Horacio (itzul.). Akal Universitaria bilduma, 283. Madril: Akal
- Gilligan, Carol (1982) *In a different voice : psychological theory and women's development*. Cambridge: Harvard University Press.
- Goodwin, Barbara, (1997). *El uso de las ideas políticas*. Lynch, Enrique (itzul.). Bartzelona: Península.
- Habermas Jürgen. (1987). *Teoría de la acción comunicativa, II*. Humanidades serie, Madril: Taurus.
- Herrero, Yayo (koord.); Pascual Rodríguez, Marta (koord.) eta Cembranos, Fernando (koord.) (2011) *Cambiar las gafas para mirar el mundo: una nueva cultura de la sostenibilidad*. Madril: Libros en Acción.
- Inglehart, Ronald (1991). *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*. Madril: CIS.
- Jiménez-Yáñez, Ricardo-Maria (2018) "El programa electoral: El análisis desde la Teoría del Framing". Llamas, Carmen (ed.) *El análisis del discurso político: géneros y metodologías*. Lingüística biluma, 14. Nafarroa: Eunsa. 103-130. or.
- Klemperer, Victor (2005) *LTI: La lengua del Tercer Reich: apuntes de un filólogo*. Kovacsics, Adan (itzul.). Bartzelona: Círculo de Lectores

- Lakoff, George (2007) *No pienses en un elefante: lenguaje y debate político*. Mora, Magdalena (itzul.) Foro Complutense bilduma. Madril: Complutense editoriala.
- Lippmann, Walter (1965) *Public opinion*. Political Science bilduma. New York: Free Press
- Martínez-Bascuñán, Máriam (2020), "Feminismo". Anton, Joan eta Torrens, Xavier (ed.) *Ideologías y Movimientos políticos contemporáneos*, Laugarren edizioa. Madril: Tecnos, 707-725. or.
- Martínez-Palacios, Jone eta Ormazabal, Andere (2020), "Machismo". Anton, Joan eta Torrens, Xavier (ed.) *Ideologías y Movimientos políticos contemporáneos*, Laugarren edizioa. Madril: Tecnos, 678-706. or.
- Mccombs, Maxwell eta Shaw, Donald. (1972). "The Agenda-Setting Function of Mass Media". *American Association for Public Opinion Quarterly* [On-line]. 36. 176-187. Eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/209410047_The_Agenda-Setting_Function_of_Mass_Media [Kontsulta eguna: 05/02/2021]
- Meyer, Michael (2003) "Entre la teoría, el método y la política: la ubicación de los enfoques relacionados con el ACD". Wodak, Ruth eta Meyer, Michael (komp.) *Métodos de análisis crítico del discurso*. Fernández, Tomás eta Eguibar, Beatriz (itzul.). CLA-DE-MA seriea. Bartzelona: Gedisa. [On-line] Eskuragarri hemen: https://www.researchgate.net/publication/275634501_Metodos_de_Analisis_Critico_del_Discurso [Kontsulta eguna: 11/02/2021]
- Moreno, Rebeca (koord); Ripio, Vanesa; Ferrer Sandra et. al. (2019) *Feminismos: la historia*. Madril: Akal.
- Salleh, Ariel (1997) *Ecofeminism As Politics: Nature, Marx And The Postmodern*. London: Zed Books.
- Searle John (1994) *Actos de habla*. Valdés, Luis M. (itzul.) Bartzelona: Planeta de Agostini.
- Thatcher, Margaret (1987) "Interview for Woman's Own ("no such thing as society")" *Margaret Thatcher Foundation* [On-line] eskuragarri hemen: <https://www.margaretthatcher.org/document/106689> [Kontsulta eguna: 08/12/2020]
- Valencia, Angel (2020), "Ecologismo". Anton, Joan eta Torrens, Xavier (ed.) *Ideologías y Movimientos políticos contemporáneos*, Laugarren edizioa. Madril: Tecnos, 726-749. or.

- Vallès, Josep M., (2007). *Ciencia Política. Una introducción*. Bartzelona: Ariel.
- Van Dijk, Teun A. (2012) *La ciencia del texto: un enfoque interdisciplinario*. Hirugarren edizioa . Paidós Comunicación bilduma, 5. Madril: Paidós. [On-line] Eskuragarri hemen: <http://www.discursos.org/oldbooks/Teun%20A%20van%20Dijk%20-%20La%20Ciencia%20del%20Texto.pdf> [Kontsulta eguna: 11/02/2021]
- Van Dijk, Teun A. (2016). “Análisis Crítico del Discurso”. Revista Austral de Ciencias Sociales [On-line]. 30. 203-222. Eskuragarri hemen: <http://revistas.uach.cl/pdf/racs/n30/art10.pdf> [Kontsulta eguna: 11/02/2021]
- Young, Iris Marion (2005) *On female body experience: "throwing like a girl" and other essays*. New York: Oxford University Press.
- Zapata, Ricard. (2005). “El significado de la Teoría Política: gestión de cambios estructurales e innovación política”. REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas [On-line]. 109. 37-74. Eskuragarri hemen: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1262056> [Kontsulta eguna: 20/02/2021]

Hauteskunde programak

- Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra (2020) “PROGRAMA ELECTORAL. Elecciones Autonómicas 2020”. Hauteskunde programa. [On-line]. Eskuragarri hemen: <https://www.socialistasvascos.com/documentos/documentos/PROGRAMA-PSE-2020.pdf> [Kontsulta eguna: 20/02/2021]
- Euskal Herria Bildu (2020) “Hauteskunde programa 2020”. Hauteskunde programa. [On-line]. Eskuragarri hemen: <https://www.egitekoprest.eus> [Kontsulta eguna: 20/02/2021]
- Elkarrekin Podemos – Ezker Anitza (2020) “ERKIDEGO PROGRAMA”. Hauteskunde programa. [On-line]. Eskuragarri hemen: https://podemoseuskadi.opennemas.com/media/podemoseuskadi/files/2020/06/30/Programa_eus.pdf [Kontsulta eguna: 20/02/2021]
- Eusko Alderdi Jentzalea – Partido Nacionalista Vasco (2020) “EUSKADI ZUTIK. Aterako gara!!”. Hauteskunde programa. [On-line]. Eskuragarri hemen: <https://www.eaj-pnv.eus/es/documentos/19724/programa-electoral-elecciones-al-parlamento-vasco-> [Kontsulta eguna: 20/02/2021]
- Partido Popular + Ciudadanos (2020) “UN PLAN PARA EL FUTURO. Etorkizunerako plana”. Hauteskunde programa. [On-line]. Eskuragarri hemen: <https://www.pp.es/elecciones-pais-vasco-2020> [Kontsulta eguna: 20/02/2021]

ERANSKINAK

Laburduren eta siglen zerrenda

- Covid-19: SARS-CoV-2. eragindako gaitza eta pandemia
- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
- AEB: Ameriketako Estatu Batuak
- PSE-EE: Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra
- NBE: Nazio Batuen Erakundea
- MGH: Milurteko Garapenerako Helburuak
- GIH: Garapen Iraunkorreko Helburuak
- EAJ: Eusko Alderdi Jeltzalea
- EHB: Euskal Herria Bildu
- LGTBI: Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualen mugimendua
- EP-EA: Elkarrekin Podemos – Ezker Anitza
- PP+Cs: Alderdi Popularraren eta Ciudadanos alderdiren koalizioa

Irudien zerrenda

- 1. Irudia. Marko Teorikoaren laburpen kontzeptuala.....11
- 2. Irudia. PSE-ren zuhaitz ideologikoa.....19
- 3. Irudia. EAJ-ren zuhaitz ideologikoa.....25
- 4. Irudia. EHB-ren zuhaitz ideologikoa.....30
- 5. Irudia. EP-EA-ren zuhaitz ideologikoa.....36
- 6. Irudia. PP+Cs-ren zuhaitz ideologikoa.....40
- 7. irudia. Korronteen koadranteak.....43